



ttipi-ttapa

2015eko ekainaren 25a | XXXV. urtea | 641. zenbakia

www.ttipi.eus



Pedro BAÑARES
Arkupeak elkartearen presidentea lana utzi du → 30

Sanferminak

Lesakan eta Azpilkuetan

LESAKA → 20

Disney Fantasy kontzertua musika bandaren eskutik

BAZTAN → 36

Giltxaurdiko lan-poltsa osatzeko deialdia

SENPERE → 42

Hiru Soinu taldeak bere bigarren diska kaleratu du

KIROLA → 45

Baztan eta Doneztebeko jubentilek mailaz igo dute

Galzorian dauden bi landare espezie babestuz, Baztan Ikastolak 5. Oinez Basoa osatuko du Gainekolan. **ERREPORTAJEA → 4-5**



Nafarroa Oinez 2015



Euskarak eta naturak, biek bat egiten dute Oinez Basoan



Arbizu, Tafalla, Tuteria eta Zangozako basoen ondotik, Baztan Ikastolarena izanen da landatuko den bosgarren oihana. Tokian tokiko proiektua da Oinez Basoa, naturgune autoktono bat birsortzeko helburua duena. Egitasmoa 2008an abiatu zen, Nafarroa Oinez bestak uzten duen aztarna ekologikoa gutxitzeko asmoz.

Baztango Batzar Nagusiak Gainekolan utzi die oihanberritzeko 9 hektareako eremua, eta herri-lurretan auzolanean landatuko dena herriarentzat geldituko da. Galzorian dauden bi landare espezie aldatuko dituzte, xarma edo pagolizarra (*Carpinus Betulus*) eta lora edo erramu portugaldarra (*Prunus Lusitanica*).



Jose Antonio APEZETXEA


ELKARRIZKETA → 3

Sekularizazioa indartsu dagoen honetan, apez egitea erabaki du Jose Antonio Apezetxeak. Uztailaren 5ean emanen du meza berria Goizuetan.

Turismoa

«Baliabideak koordinatu eta ekintza plana garatzeko», Baztan-Bidasoaldeko 15 udalek eta Cederna-Garalar elkarteak hitzarmena sinatu dute

→ 10



LESAKAKO UDALAK
San Fermin zorientsuak
opa dizkizue herritar eta
kanpotik etorritako guztiei



ttipi-ttapa



DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu :

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak ...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.eus www.kulturkari.com

Ibilbide akademiko luzea du Jose Antonio Apezetxeak (Goizueta, 1959) atzetik. Besteak beste, Geografia eta Historian lizentziatua da eta sendabide gaiekiko interesak bultzatuta,

hainbat ikasketa ere egin ditu eta medikuntza naturistako postgradoa ere egin du. Kanpoan ere ibilia da: Indian yoga eta ayurveda –Indiako medikuntzako antzinako tratamen-

dua– ikasi zituen eta Japonian *Body balancing movements*. Duela gutxi, berriz, apaiz ikasketak bukatu ditu eta sorterrian emanen du bere lehen meza, uztailaren 5ean.

Jose Antonio APEZETXEA ESKUDERO | Goizuetako apaizgaia

«Jendea Jainkoaren maitasunaren gose-egarri da, nahiz eta ez aitortu»

G. PIKABEA | GOIZUETA

Zein ibilbide egin duzu orain arte?

Goizuetan egin nituen oinarrizko ikasketak, eta batxilergoa, berriz, Iruñeko Aralarko San Miguel ikastetxean. Geografia eta Historian Madrilgo Unibertsitate Autonomoan lizentziatu nintzen eta bi urtez Oronozko Nekazaritza Eskolan lanean aritu nintzen. Sendabide gaietan interesatuta, masaia terapeutikoa, oinetako erreflexu-terapia eta drenai linfatikoa ikasi nituen. Zaragozako unibertsitatean medikuntza naturistako postgradoa bukatu nuen eta azken urteotan, 2006ra arte, yogako irakasle aritu naiz. Indian ere ibilia naiz, hango institutu batean yoga ikasi nuen, eta ayurveda Indiako medikuntzako antzinako tratamenduaz ere zer bait bai. Japoniara *Body balancing movements* ikastera joan nintzen, fisioterapeuta ezagun batekin. **Zergatik erabaki zenuen 50 urterekin apaiz ikasketak egitea?**

Orduan azaldu zen bokazioa garbi. Ez dut betidanik bokaziorik izan, baina momentu bereziak izan ditut, kristau bideari ekiteko Jainkoaren izpirituaren bultzadak, beste gauzak utzita Jainkoaren bila jartzeko. Gure herrietan apaizak zahartzaren ari zirela ikustean, hauen lanari jarraipena



UTZITAKO ARGAZKIA

Apaiz ikasketak bukatuta, uztailaren 5ean bere lehen meza emanen du Jose Antoniok Goizuetan.

nork emanen zion galde-tu nion neure buruari. Pentsamendu horietan nenbilela, apaiz batek ea noz bait apaizgoan pentsatu nuen galdetu zidan; berehala ohartu nintzen Jainkoaren dei berezia eta zuzena zela. **Sei urte eman dituzu Iruñeko Seminarioan ikasten. Zein balorazio egingen zenuke?**

Hasieran, asko kosta zitzaidan; aita zaindu behar nuen, eta Goizuetatik Iruñera joan-etorri ibili nintzen lehenengo hiru hilabeteetan; gainera, unibertsitate mailako ikasketak dira, eta ikasketako ohitura galdua nuen. Dena den, ariz, pixkanaka ohitura hori berreskuratu nuen. Askok ikasi dut,

NONGO APAIZ?

«Berri ona zabaltzea da apaizaren helburua eta horretarako zein herritan egingen duan hori hobekien, hango apaiz izatea gustatuko litzaidake. Ez dut pentsatu herri batean bereziki».

ESKER ONEKO HITZAK

«Aipatu eta eskertu nahi ditut, bereziki nire bi osaba apaizak, Ramon eta Pello, On Esteban Goizuetako parrokoa, seminarioko apaizak, aita zena, ama zena eta senideak, emandako animo eta laguntzagatik».

eta ikasitakoa oso balio-tsua izan da, pertsona, kristau eta apaizgai bezala sakontzeko. Gai batzuk zailagoak egin zaizkit, besteak errazagoak, baina denak lagungarri. **Goizuetan emanen duzu zure lehen meza, uztailaren 5ean...**

Niretzat berezia da Goizueta, nire jaioterria delako; fedean lehen pausok hemen egin nituelako. Herritarrentzako pozgarria ere bada eta nire bi osaba apaizek hemen ospatu zuten beraien lehen meza. Emozio berezia sortzen dit meza berria herrian ospatzeak. **Aspaldi ez da apaizik atera gure eskualdean. Zergatik ote da?** Azken urteotan, mende-

baldeko nazio askotan bezala, sekularizazioa indartu delako, hau da, pertsona munduko gauzetan murgildu delako, Jainkoa gorestu eta eskerrak ematea alde batera utziz. Hau dela eta, fedea hozten joan da.

Nola ikusten duzu kristautasuna inguruan?

Sinismena jaitsi den arren, jendea Jainkoaren maitasunaren gose-egarri da, nahiz eta ez konturatu edo ez aitortu; pertsona, lehen eta orain, otoitzaren beharrea aurkitzen da.

Gero eta jende gutxiago joaten da elizara. Zerk huts egin ote du?

Sekularizazioagatik da gehienbat. Hau modernismoaren ondorioa da; ideologia honek gizakia bere bizimoduan Jainkoari ez balitz bezala jokatzen bultzatzen du. Beste hainbat gauzarekin bete nahi du tarte hori.

Aldiz, gero eta kultura gehiagotako jendea dugu inguruan...

Kristauak pertsona guztiak senide bezala ikusten ditu, Jainkoaren seme-alabak baitira; bere jatorria kontuan hartuz eta errespetatuz, lagundu behar diegu gure izaera eta ohiturak ezagutzen. **Zein etorkizun ikusten diozu kristautasunari?** Maitasunak duena; Jainkoa maitasuna da. Maitasunak garaituko ahal du gorrotoa! Hor dago itxaropena.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Basoa osatzeko laguntza eman nahi duenak, 10 euroko ekarpena eginda zuhaitz bat babesteko aukera du, 9 hektarea betetzeko erronka dute.

NAFARROA OINEZ 2015 → GUZTION ARTEAN, AUZOLANEAN

Euskara eta naturaren aldeko landaketa

Baztan Ikastolak galzorian dauden bi landare espezie babestuz 5. Oinez Basoa osatu nahi du

Nafarroa Oinez bestak uzten duen aztarna ekologikoa gutxitzeko asmoz 2008an abiatu zen ekimena. Tokian tokiko proiektua da, naturagune autoktono bat birsortzeko helburua duena. Baztango 5. Oinez

Basoa izanen da eta proiektuari ekarpen berezia egiteko ahalegina egin dute. Gainekola inguruan xarma eta lora landatuta baso berria sortu eta ia atzenduta dagoen mindeitzeren ohitura ezagutzera emanen dute.

Eneritz IRAOLA

Zuhaitzak izan litezke euskararen metafora. Euren txikitasunean, beharrezko babesa badute indartsu haz litezke eta. Oinez basoan euskarak eta naturak, biek egiten dute bat, landatutako zuhaitz bakoitza-

rekin ingurugiroa, Nafarroa Oinez eta euskara bultzatzea lortzen delako.

Zangozako ikastolaren eskutik jaso zuen lekukoa Baztan Ikastolak eta apiril hondarrean aurkeztu zuten egitasmoa jendaurrean. Geroztik,

www.oinezbasoa.eus webgune berriaren bidez informazioa eskaintzen ari dira. Ekimenean laguntzea eta parte-hartzea errazteko tresna ere bada webgunea. Izan ere, bertan Oinez Basoa ekimenari buruzko edukiak eta informazioa eskura

jarri eta zuhaitzak babesteko aukera ematen dute. Herritarren laguntza da baso honen sustraia, Oinez Basoa auzolane-proiektua delako, mila pertsonen babestutako zuhaitzekin eraikitzen ari dena.

Arbizu, Tafalla, Tuter eta Zangozako basoen ondotik, Baztan Ikastolarena izanen da landatuko den hurrengoa. Eta bosgarren baso honek ere bere ekarpen bereziak egingen ditu.

HERRI-LURRETAN, HERRIARENDAKO

Baztanen lur eremu osoaren %80tik goiti komunala dela kontuan izanik, Baztango Batzar Nagusiari eskatu zieten lur zatia. «Kostalderat ematen duten Gainekola parajeen eman zion Batzar Nagusiak baimena Baztan Ikastolari. Hortaz, antolaketa komunala izanen du ezaugarri. Baztandar guztiena izanen da basoa eta guztien artean landatua izanen da,

NOLA LAGUNDU OINEZ BASOA OSATZEN?

Zuhaitzak babestuz: Zuhaitz bakoitzeko 10 euroko ekarpena eginda basoaren sorreran lagun liteke. Zuhaitzez zuhaitz osatuko baita denon artean, Oinez basoa.

Laguntzaile bihurtuz: 100 zuhaitz baino gehiago babesten dituztenak proiektuaren laguntzaile bihurtuko dira. Ekarpena maila pertsonalean edota enpresa edo talde baten izenean egin liteke.

www.oinezbasoa.eus webgunean

auzolanean» azaldu digute Manolo Lizardi eta Andres Barberenak, Oinez Basoko kideek.

ESPEZIE BEREZIAK

Horretaz gain, landatuko diren bi landare motak ere Baztango basoaren bereizgarriak izanen dira: xarma edo pagolizarra (*carpinus betulus*) eta erramu portugaldarra edo lora (*prunus lusitanica*) aukeratu dituzte, «loroa Nafarroan harrapatzen ahal den toki bakarra Baztanen dago, Urritzate eskualdean. Eta Iberiar Penintsulan gutxitutako landarea da. Eta xarma, berriz, Pirinioetatik beheiti Iberiar Penintsula osoan, basa bakarrik Bortzirietan, Igantzin eta Arantza artean harropa liteke» diote. Hemen nahiko kopuru txikian dauden landareak izanik, «beraien garrantzia areagotzen da» horregatik, «bertakoek hori jakin eta beraien alde lan egin behar dugu».

ASPALDIKO LANDAKETA SISTEMA

la atzendua dagoen mindeitze egitearen ohitura ezagutzera ematea izan da Oinez Basoaren bertze ekarpenetako bat. Baztanen eta inguruko herrietan garai batean sustraitua zegoen ohitura zahar honi buruzko lekukotzak, argazkiak... bildu dituzte. Baso berria sortzeko orduan, iraganetik zer ikasia izanen dugulako ziurrenik.

SAREA OSATZEN

«Nafarroan euskararen aldeko baso sarea sortzen ari gara. Hori da apustua eta laguntza behar dugu euskarababestu eta eskualdean ditugun bi espezie arras berexi, altxor ikaragarriak direnak aitzinerat ateratzeko»

Manolo LIZARDI
Oinez Basoko kidea



ARGAZKIAK: ANDRES BARBERENAK UTZIAK

1- Loroa . 2- Xarma. 3- Gainekolako eremuaren argazkia, bertan ari dira egiten Oinez basoa.

MINDEITZE, OHITURA ZAHARRAK BERRESKURATUZ

Oinez Basoa ekimenaren baitan, basoari buruzko testigantzak biltezeko orduan mindeitze izan zen hizketagai nagusia. Han eta hemen galdezka aritu dira eta tartean, Andres Barberenak Zigakoa den bere aitaren lekukotzak bildu ditu. Berak azaldu dio antolamendua «**eskuarki, herri lurretan eta auzolanean egin ohi ziren mindeitzek eta inguruz inguru harrizko pareta edo hesi batez itxita egoten ziren animaliak ez sartzeko, barneko landareak jan zitzaten saihesteko**». Zenbaitetan, herritik herrira desberdina zen mindeitze lanen antolamendua «**Zigan erraterako, Zimeztei parajeen egiten zen mindeitzen herriko familia guztiak edo gehien-gehienak aritzen ziren lanean, senide bakoitzeko partaide bat edo gehiago, eta, gero, familiaka edo baserrika banatzen ziren arbolak**».

Urtean bitan izaten zuten auzolana eta urteroko eginbeharra zen. Lehenbizikoa neguan, otsailean. Lanak taldeka banatuta «**aitzineko urtean kendutako arbolen tokian lurra prestatu eta aitzurtu, erreka egin, erein eta, gero, berriz lurraz estaltzen zuten. Banatu beharreko landareak errotik ateratzea zen bertze batzuen eginbeharra, horien tokian berriak landantzeko. Hauek guztiak ondoko borda baten kanpoko aldean mukurutzen zituzten banaketa egiteko**». Inguruaren mantenu lanak egitea ere beharrezkoa izaten zen «**hesiaren pareta puskak erortzen baitziren jausitako adarren ondorioz edo aziendak botata**». Bigarren auzolana uda garaian izaten zen, «**ekainaren akabailan, San Juan inguruan**». Lan hauetan parte hartzea irekiagoa izaten zen «**haur, gazte eta helduak ibiltzen ziren auzolanean belar txarrak kentzen, lekua garbi uzten eta jorratzen**». Dena ez zen lana ordea, «**auzolanan akitzean otordu txiki bat egiten zuten**».



ARGAZKIAK: ANDRES BARBERENA UTZIAK

1- Aritzakunen zegoen mindeitze, oraindik inguruko pareta ia osorik dago. 2- Iurretako errekan paraje honetan zegoen mindeitze, duela 70-75 urte lekuz aldatu eta herrira hurbildu zuten. 3- Zigako mindeitze, Zimeztein. Gaur egun dauden aztarnak arras tikiak dira, sasiek eta oihanak hartuta daukate.

Landareei dagokienez, Zigan «**haritza, haritz amerikarra eta gaztainondoak landatzen ziren gehienetan. Baztango gainerako herrietan ere horiek ziren ohikoena, baina bertze espezie batzuk ere landatzen zituzten**». Mindeitzetan hazitako landare horiek gero, herriko familien artean banatzen ziren «**Zigan, herriko familia bakoitzari zuhaitz planta kopuru bera ematen zitzaion eta gero gehienak herri lurretan birlandatzen ziren, baso bat zegoen tokian edo eroritako zuhaitz baten ordez**».



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Usainka

Loak hartu aurretik jarri dut nire eskua zure bizkarrean. Beharbada loak hartzeko. Eta bitarte horretan eskuak berak hartu dit lo. Ez ditut hatzak sentitzen, esku-azpia ere ez. Beharbada, ohitu egin da egoera berrira, zure parte izatera. Beharbada, ez da nire sentitzen, zure baizik. Beharbada zakurrek belarriak makurtzen dituzten modu berean makurtu da bera ere zure eraginpean. Baina agian ohitu egin da, besterik gabe. Ohitura edozein efektu intsentsibilizatzeko boterea duen mamua delako. Ohitura sua itzaliko duen zirimirri fin bezain krudela delako. Ohitura delako ilusioa itzaliko duen arma hilgarria. Baina etengabeko bilaketa al da gaixotasun larri horren aurkako botika? Bilaketa desesperatuaren atzean ezkututzen den saria baita hasierako puntura itzularazten nauden hori. Eta berriro ere dudalako eskua zure bizkarrean pausatuz, baina oraingoan lo hartuko ez duen esperantzarekin.

«Ohitura delako ilusioa itzaliko duen arma hilgarria»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Tx(i)orakerien oihartzunak

Garai batean, haizeak eramaten zituen hitzak. Orain, ordea, burutik pasatzen zaigun guziaz (sarritan, burutik igaro gabe ere) 140 karaktereta bildu eta txiokatzeko joera horrekin, nahi duenak, nahi duenean eta nahi duen lekuan irakur ditzake. *Itxitako ahoan eulirik ez zioen erranerak.* Horretara iritsi gabe, bertze esaera *elebidun* hark zituen: *Antes de mintzar, kabeza martxan poner.*

Nabarmentzekoak



Juanjo ATXA
Baztan Ikastolak omendua

37 urtez irakasle izan ondotik erretiroa hartu du almandoztarrak. Hori dela eta, ikasturte akabailako besta jendetsuan (500 lagun) omenaldia eskaini zion Baztan Ikastolak.



Maria Jesus TELLETXEA
Igantzikako eskolak omendua

Irakasle ez, baina 26 urtez Igantzikako eskolako sukaldean lanean jotadela eta, ikasturte sukaldariak ere erretiroa hartu du ikasturtea bukatzean. Honek ere ongi meztzia zuten omenaldia.



Ibon URTIAGA
Orduko errekorra

Transbidasoa taldeko txirridulari beteluarrak ederki bete zuten erronka ekainaren 6an Valentzian: 44,416 km egin zituen ordubetean, master30 kategoriako Espainiako errekor berria.

Atzera begira → 2005-VI-30 / TTIPI-TTAPA 401. zk



Donato Larretxea hirugarrenez Urrezko Aizkolaria

Floren Nazabal faborito nagusiarri Azepeitan gailenduta hirugarren aldiz Urrezko Aizkolaria txapelketa irabazi zuen Donato Larretxeak duela hamar urte. «Urtean txapelketa dexente daude eta denetan ezin da aurrean ibili, baina batean edo bestean, tarteka oraindik erakusten diot Nazabali nahiko hurbilean nagoe-la», zioen. Altzinean ibiltzeko sufritu egin behar dela ere garbi zuen Donatok: «Sakrifizio aunitz egin behar dira, kirola gogorra da eta egunero zerbait egin behar da eta eginen zenituzkeen gauza asko egin gabe utzi, parrandak batez ere. Janariari begiratu behar zaio eta norberak gogor egin behar dio bere buruari».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemakaleak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA



Kolaborazioak

UPN eta Euskalerria Irratia

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Iruñeko Euskalerria Irratiak badaramatza dagoeneko 25 urte baino gehiago emititzen eta euskarazko programazio interesgarri eta kalitatezkoa ematen. Hala ere, UPN urte hauetan guztietan ez da gai izan irrati hau legezatzeko, nahiz eta, oker ez banago, jadanik hiru epai atera diren legeztapen horren alde, eta azkena, gainera, Auzitegi Gorenak emana; epai irmo edo sendoa, alegia. Bestalde, Europako Hizkuntzen Gutunak ere behin baino gehiagotan eskatu dio UPNren Gobernuari errespetatuz ditzan nafarren hizkuntz eskubideak, hala nola makina bat nafarrek eskatu dion, urte hauetan guztietan egindako hamaika mobilizazioen bitartez, eta, nola ez, baita Nafarroako Parlamentuak berak ere. Baina, hala ere, UPNren Gobernuak beti uko egin dio bete beharrekoa betetzeari, jakina, beti funtsik gabeko argudio eta aitzakia baliogabeak bezain barregarriak erabilita. Kontua izan da, Nafarroako euskaldunen hizkuntz eskubideak oztopatu, zapaldu eta suntsitzea.

Auzitegi Gorenak emandako azken epai irmotik gaur arte pasatu da dagoeneko ia-ia urte eta erdi, eta jakina, UPNk jada ez duenez aitzakiarik ez betetzeko Madrilgo agindua -epaia-, egiten ari dena da geroko gerotan jokatuko, ahalik eta gehiena atzeratzeko irratiaren legeztapena, bide batez, nafar euskaldunen hizkuntz eskubideak ahalik eta gehiena izorratzeko, azken unera arte, hau da, beraien boterea -Gobernua- galtzen duten azken-azken momentutxo arte. Gainera, azken hilabeteotan, UPNko agintariei oso gogokoa izan zaie behin eta berriz gardentasunaren kontzeptua aipatzea, baina, gero, gardentasun hori erakutsi behar dutenean, betiko opakutasun eta ilunkeriarekin jokatzen dute, konparaziora, Euskalerria Irratiak UPNri azken bileren aktak eskatu dizkionean; baina, ez jauna!, Juan Luis Sanchez de Muniainek orain dio, Euskalerria Irratiak ez duela eskubiderik akta horiek irakurtzeko. Horrela interpretatzen eta ulertzen omen du Sanchez de Muniainek gardentasuna, alegia, betiko modu ilun eta zikinean. Eskerrak, bukatu zaiela agintea Nafarroako Gobernuan.

UPNk hainbeste trikimailu zikin eta antidemokratiko egin ondoren, Euskalerria Irratiaren legeztapena eragotzi eta zapuzteko, asuntua da, gero, komeni zaionean, erabili egiten duela aipaturiko irratiaren zerbitzua, hantxe deus ere gertatu izan ez balitz bezala, beraiek inolako erantzukizunik ez balute bezala, Euskalerria Irratia legez kanpoko egoera horretan egoteko, eta horrela, bada, behin baino gehiagotan entzun izan ditugu hitz egiten irrati horretan, esate baterako, Begoña Sanzberro aurreko legegaldian eta Cristin Altuna oraingoan, biak ala biak, jakina, UPNko parlamentariak.

Bitxia da, bai, UPNren jokamoldea; xelebrea, politika egiteko bere modu irregular eta ezohikoa. Halere, nik ez diet eragotziko UPNko politikariei euskaraz aritzea Euskalerria Irratian, ez eta beste inon ere, azken batean, jakina baita euskarari egin ahal zaion mesederik handiena dela hitz egitea, idaztea, entzutea, eta abar. Azken batean, erabiltzea, modua edozein dela ere.

Bataila informatiboa

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Gipuzkoan Bilduk eta Diario Vascok eduki duten antzeko lehia bat ikustear gara Nafarroan. Argi dago Diario de Navarra jarrera erasokorra hartuko duela gobernu berriarekin, baina ikusteko dago Donostiako egunkaria bezain eraginkorra izanen ote den Iruñeko. Hasteko, Nafarroan ez baita Bildu aldaketa ordezkatzen duen indar bakarra. Gipuzkoan ez bezala, Nafarroan EAJ aldaketaren parte da, eta horrek jada paradoxa interesgarri aunitz sortzen ditu. Diario Vasco eta Diario de Navarra biak dira ideologia eskuindar eta espainolistadun egunkariak, baina haien ideologien egoera ez da berdina bakoitzaren lurraldean. Nafarroan, eskuin espainolista agindu du ia beti. Gipuzkoan, espainolismoa ez da alternatiba bat. Horregatik, Diario Vascok lau urteotan EAJ promozionatu du, Bildu agintetik ken zezakeen indar bakarra zelako. Eta behin ildo hori markatuta, Diario Vascok ez du auzi identitarioetan edo ETAn zentratu Bildu desgastatzeko kanpaina; ETAn indarkeriarik gabeko aro politiko batean bizi gara, eta auzi identitarioetan jarrerak aski finkatuta daude herritarrengan. Horren ordez, arrunt estrategia inteligentea erabili du, eta eguneroko gestioa gai zehatz batzuk hartu ditu Bilduren kontra jotzeko; batzuetan, Bilduren erabakiek herritarren sektore batzuegan sortu duten kontrako jarrera sustatuta, eta, berteetan, bertze alderdiekin eta patronalarekin sintonian polemika zehatzak sortu eta haizatuta. Horrela, lortu du herritarren zati handi bati halako sentipen bat igortzea, iradokitzen zuena Gipuzkoan eta bereziki Donostian liskarrak eta agintarien noraeza nagusi izan direla. Abantaila bat badu Diario Vascok halako kanpaina bat egin ahal izateko, sarbide erraza baitu Gipuzkoako -eta Bortziritako eta Malerreka- etxeetan. Izan ere, Diario Vasco *periodikua* deitzen zaio etxe gehienetan, lortu baitu halako izaera neutro baten ideia txertatzea herritarren zati handi batengan. Izena dutenak bertzeak dira -Noticias, Gara, Berria, El País...-, eta, beraz, izana markatua go hautematen diete herritarrek. Estrategia egokia erabiltzeagatik eta berezko indarragatik, helburua bete du Diario Vascok. Eta Nafarroan? Diario de Navarra lortuko al du halakorik? Dena dago ikusteko, baina orain arteko jarrera adierazgarria izan da, identitatearen eta ETAn bide gogor jorratzen hasi baita. Egia da oraindik ez duela gestioa kritikatzeko deus harrapatu, gestiorik hasi ez delako ia, baina agian Diario de Navarra ez du gaitasunik izanen Diario Vasco bezain eraginkorra izateko. Hedapen handiena duen egunkaria da Nafarroan, bai, baina ez du Diario Vascok bezain pertzepzio *neutroa*; argi eta garbi UPNren egunkaritzat identifikatzen da. Zailagoa du, beraz, soka horretakoak ez diren herritarrengan eraginik uztea. Gainera, Hego Euskal Herriko bigarren komunikazio talde handiena, Noticias, Gipuzkoan Diario Vascoren trintxera berean kokatu da, baina Nafarroan aldaketaren indarrak babesten ditu. Prentsak bakarrik ez ditu gobernuak kentzen eta paratzen, baina hagitx eragile inportantea da. Lau urte zirrargarri izanen ditugu Nafarroan bataila informatiboa nola garatzen den aztertzeko.

Irakurleak mintzo

Askatasuna

Jon ABRIL OLAETXEA (Bera)

Ez da erraza askatasunez bizitzea Euskal Herrian. Jazarpena modu aunitzetan eman izan da gurean, gradu aski desberdinetan: irainetik, heriotzeraino; pintada, tortura, mehatxu, atentatu, atxiloketa, bahiketa eta bertzelako adierazpide frankoren bidez. Ideologia politiko eta klase sozial aski desberdineko jendeak sufritu du.

Anitz dugu egiteko elkarbizitza hobetzeko bidean, anitz aitzinatu badugu ere. Haserre hartu dut Debagoienako Goiena komunikabidearen (gure eskualdean Ttipi-ttaparen parekoa dena) kontra egindako pintaketak. Ttikieria bat iruditu izanzen zaio hainbati. Ba nire gaitzespen osoa dute. Ez du inoren integritate fisikoaren kontra egiten, baina prentsa-askatasunaren kontrako eraso larria da, euskara biziberritzeko lan eredugarria egiten duen komunikabide baten kontrako da, eta proiektu horren gibelean dauden pertsona eta komunitate oso baten kontrako.

Zoritxarrez, askatasuna, aniztasuna eta pluraltasuna zer den ez dakien jende aunitz dago gure artean. Eta jarrera horiek dira soberrak daudenak.

Badakit zer den, alde batetik eta bertetik askatasun falta hori pairatzea. Niretzat ez dudana nahi, ez diot bertze inori desio. Besarkada handi bat Goienako lankide eta laguneri (Iban, Larraitz, Eneko...), eta animo guztia kazetari lanean euskararentzat plaza berriak irabazteko lanean ari-

tzen zareten guztioi. Biba zuek, eta biba zuen libertatea!

Leitzan zer?

Asier ZABALETA (Leitzako herritarra)

2015eko maiatzaren 24an hauteskunde garrantzitsuak igaro eta ustekabe haundirik gabe, emaitza aipagarri aserko geratu dira agerian, bai Espainian eta baita Euskal Herri osoan ere. Leitzan, nire herrian, 2003-2007ko hauteskundeetan boto aberzaleak 1.400 ziren eta orain 1.200era ailegatzaren ez direla ikusita eta boto baliogabe eta txuriak 180 izanda, zer gertatu da?

Agian herri honi dagozkion erabakietan, hitza ukatu diotenenek, txiringito batetan erabaki izanak, eta nortzuk gindatzen duten ikusita, herriak haserre adierazi duela? Edo denona den herria, batzuek bakarrena dela uste dutenei zigortzeko botoa eman.

Oso agerian geratu dena zera da, politikan beharrekoak: A. Goldarazena, J. Asiron, A. Araiz, L. Perez... eta Uxue Barkos zoriontzeaz gain, besarkada bat ematea ere badagokit.

Baina bukatzeko, autokritika publikoa egin behar dutenek, lehenbait lehen egin dezatela, herri honen mesederako. Eskerrik asko.

Zenbat kostatzen da alderdi bakoitzaren kampaia, gertatzen ari den krisi egoera ikusita?



Bota bertsoa

Ane TELLETXEA IGOA • Doinua: Xuriko

Baztan-Bidasoaldeko XXVIII. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (15-18 urte)

Euskara

- | | |
|--|--|
| <p>1
Euskara hizkuntz bezela
du(e)n herri kuttuna
euskara beti eskura
guk dugun laguna
mintzatzeko nahi dugu
guk askatasuna
euskara da euskaldun
egiten gaituna.</p> <p>2
Aunitzek erraten du
'Gora Euskal Herria'
eta gero atzetik
euskara urria
batzuek ikasteko
dute egarria
eta bertzeek ixten
dute iturria.</p> | <p>3
Ho(rre)la murrizten ari da
gure hizkuntz zaharra
sustrai bakar batetik
sortu den bakarra
denok zuhaitza bustiz
haundituz adarra
guk emango diogu
behar du(e)n indarra.</p> <p>4
Mezu bat da eta kasu
egin iezauguzu
gure hizkuntza izatea
dugula guk luxu
etorkizuna sortzen
hasiz pausuz pausu
geroan txinatarrez
egin nahi al duzu?</p> |
|--|--|

LIDERRAK GURE ESQUALDEAN

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 121 udalerrien eremuan ere

Ttipi-Ttapa^{rekin} zure iragarkiak eragin handiagoa du

TTIPI-TTAPA
25.000 irakurle

D. NAVARRA 14.000 irakurle
D. NOTICIAS 13.000 irakurle
GARA 7.000 irakurle
BERRIA 3.000 irakurle
MARCA 3.000 irakurle
EL PAIS 1.000 irakurle
BESTE BATZUK 9.000 irakurle

Sexuaren arabera		
GIZONAK	%43,10	
EMAKUMEAK	%56,90	

Adinaren arabera		Ikasketa mailaren arabera	
14-24 urte	%11,80	IKASKETARIK GABE	-----
25-34 urte	%15,50	LEHEN IKASKETAK	%13,10
35-44 urte	%26,50	LANBIDE HEZIKETA	%36,00
45-54 urte	%16,50	BATXILERGOA	%34,10
55-64 urte	%14,30	UNIBERTSITATEA	%16,80
+ 64 urte	%15,40		

Datu iturria: CIES 2015eko 1. neurketa

Prentsatik bildutakoak



«Zentzu batean, denok gara politikari. Ez dugu denok irudi aholkulari bat, baina posible balitz, izango genuke».
«Sistemak eratu behar dira entzuleak arazoaren pare jartzeko, eta horretan artea izan liteke tresna polit bat».
«Eredurik agerikoena da albistegietakoa; pertsona neutroak, bai hizkeragatik bai fisikoki, ia manikiak».

Xabier ERKIZIA
Lesakako soinu artista
BERRIA 2015.06.17



«Zerbaitek ez badu ikasgelan funtzionatzen, ez pentsatu haurraren errua dela, baizik eta gela ez dagoela ongi antolatua edo materiala ez dela egokia».
«Guk 2+2=4 dela ikasi dugu, baina alderantzizko erueda da Montessorirena: lehenengo ukitu, bizitu zenbakiak, abakoak... eta gero egingo du umeak abstrakzioarako saltoa».

Estitxu ELGORRIAGA
Lesakako irakaslea
ARGIA 2015.06.14

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

27 urte dituen Azpilkuetako neska gazte bat naiz.

Denbora librean zer egitea duzu gustuko?

Mendirat gan eta lagunekin egotea. Bentetan lan egiten dudanez, jai egunak astez izaten ditut. Larunbata libratzen dudanean ahalik eta gehien probesten saiatzen naiz.

Zein da Azpilkuetako besten berxitasuna?

Sortzen den herri-giroa arras berxia izaten da. Gutti garenez, denon laguntza eta elkarlana beharrezkoa izaten da eta gehienok parte hartzen dugu zerbaitetan.

Eguneko edo gaueko besta nahia go duzu?

Saiatzen naiz biak lotzen. Lau egun izaten dira, laburrak baina intentsioak...

Galdu ezin duzun ekitaldia?

Ez dut hutsik egiten jatan. Zopak, zikiroa, gazteen bazkaria... dena da arras inportantea.

Frontenisean animatzaile ona omen zara...

Norbait behar izaten da horretarako ere eta hobea naiz animatzen jokatzeko baino...

Bestako une hoberena?

Mahai inguruko giro hori maite dut gehien.

Hurbileko herrietako bestetara ere joaten zarete?

Arizkun, Amaiur, Elizondo... ahal badugu behintzat egiten dugu bisita.

Bidaiatzea maite duzu?

Bai, Estatu Batuetara joanen nintzateke gustora.

Bisitatu duzun tokirik maiteena?

Txile, aunitz ikasi nuen. Hango pobrezia ikusteak, hemen dudana baloratzen erakutsi zidan.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Beltza. Badut esperantza poliki poliki goiti egingen dugula baina kostako da.



Cristina AZKARRAGA ZUBIRI → Azpilkuetako gaztea

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

Goieko DESIN BERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoaz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK
BOKATIAK
TFNoA: 948 630 259 BERA

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
KATEA-BIKE
bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!
CONDOR ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

ERROTARZAR
harategia
BERTAKO PRODUKTUAK
Eztegara, 3 · BERA
T/F. 948 630 088
info@errotazar.net
www.errotazar.net

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

BAZTAN-BIDASOA

TURISMOA → EKAINAREN 11N SINATU ZUTEN HITZARMENA MALERREKAKO MANKOMUNITATEAN

Hamabortz udalek eta Cedernak bat egin dute turismoa garatzeko

Bide Berdea eta bertze egitasmoak indartu nahi ditu Baztan-Bidasoa Garapen Turistikoak

TTIPI-TTAPA

Bera, Lesaka, Igan-tzi, Arantza, Baztan, Zubieta, Ituren, Eratsun, Ezkurra, Beintza-Labaien, Urroz, Donamaria, Oiz, Elgorriaga eta Bertizaranako udalek eta Cederna-Garalur erakundeak elkarlan hitzarmena sinatu zuten ekainaren 11n, Baztan-Bidasoaldeko garapen turistikoa bultzatzeko.

Aurkezpenean aipatu zuten bezala, «elkarte berri bat sortzea baino



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Udal ordezkariak eta Cedernakoak, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

egokiagoa iruditu zaigu turismo arloan ere lanean ari den erakunde batekin elkartzea». Helburuen artean, «turismo arloan ditugun baliabideak koordinatu nahi ditugu eta beharrei eta aukerei egokitu tuko ekintza plana garatu». Hiru lan ildo izanen di-

tuzte, «eskualdearen promozio bateratua, gure proiektu estrategikoak edo ekimen pribatuak martxan jartzea eta tokiko agenden koordinazioa». Bidasoko Bide Berdeaz gain, interes orokorreko bertze proiektuak ere baloratuko dituzte.

Oraingoan, Urdazubi, Zugarramurdi, Doneztebe, Sunbilla, Saldias eta Etxalarko udalek ez dute bat egin hitzarmenarekin. Funtzionamendu gastuak estaltzeko udalek bizilagun kopuruaren arabera (%50), alojamendu lekuen arabera (%30) eta IAEa turis-

mo arloan ordaintzen duten establezimendu kopuruaren arabera (%20) ordainduko dute. Teknikari bat kontratatuko dute lanaldi erdian.

BIDE BERDEA ETA EUROVELO

Bertziko Partzuergo Turistikoaren lekukoa hartuz, orain Cedernak izanen du, udalekin batera, Bidasoko Bide Berdearen mantenuaren eta sustapenaren ardura. Irailerako Eurovelo 1aren behin betiko ibilbidea erabaki beharra dago. Hiru alternatiba daude, hiruak Malerrekatik baina aurrekontu arras ezberdinekin. Europatik datorren %65-eko dirulaguntza esku-ratzeko erabaki beharra dago. Doneztebe eta Baztan arteko Bide Berdea ere egiteko dago.

BORTZIRIAK^{SL}
25 urte eskerrik asko guztioi!!!

**MAHAI eta AULKIETAN
ESKANTZA BEREZIAK**

expert

**%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

LESAKAKO BESTAK 2015

ttipi-ttapa | 641 zbk
2015.06.25

11

asesoria
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi
pasa
bestak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emailtza.eu

UZTAILAK 3, ORTZIRALA

22:00 Disney Fantasy emanaldia, Lesakako Musika Bandaren eskutik frontoiko atzekaldeko aparkalekuan.

UZTAILAK 4, LARUNBATA

- 10:00 Ilasmendin Plater-tiroketa Pagolleta Ehiza Elkartek antolatuta.
- 16:00 Arkupe Elkartek antolatuta, Haurren Pilota Erakustaldia udal pilotalekuan.
- 23:00 Txamukos Mariatxiak taldearen emanaldia Onin gainean.

UZTAILAK 5, IGANDEA

- 11:00 Erraldioen topaketa. Harriondoa Kultur Etxetik abiatu eta kalejiran ibiliko dira kaleetan zehar.
- 18:30 Herri kirol erakustaldia plazan.



ttipi-ttapako

**BERRIAK
TWITTERREN ERE BAI!
JARRAI ITZAZUE GURE TXIOAK!**



@ttipi_ttapa

LEIZA OSTATUA
"Antoiu"

Tel. 948 637 087

Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

BOKATAK
RAZIOAK
EGUNEKO MENUAK
MENU BEREZIAK ENKARGUZ
PLATER KONBINATUAK

KOXKONTA

JATETXEA | LESAKA

T. 948 627 519

30€
BEZ
Barne

**BESTETAKO MENUAK:
UZTAILAREN 6 ETA 7AN**

Askotariko iberikoak

*Antxoia marinatuaren entsalada freskoa
barazki ozipin-olioarekin*

Onddo eta otarrainska risotoa

*Ahate-gutizi eta barazki brika
bizkaitar saltsarekin*

*Zapo eta otarrainska broxeta panadera
patata eta itsaski-kremarekin*

edo

*Jxahal-txuleta parrilan patata eta
piperrekin*

*Postrea, ardoa, ura
eta kafea*

Ongi pasa
bestak!

35€
BEZ
Barne

Urdaiazpiko iberikoa

*Gula eta ahuntz-gazta entsalada epela iberiko
kurruskari eta saagar-gozokiarekin*

*Donostiar erara egindako txangurru tartalata
porru-krema suabearekin*

*Ajparriero bakailao krepeak otarrainskekin
pikillo saltsaren gainean*

*Zapoa plantxan baratxuri freskoen olio
errearekin*

edo

Legatza itsaskiz bete

edo

Jxuleta parrilan patata eta piperrekin

edo

*Azpizuna plantxan patata eta
piperradarekin*

*Postrea, ardoa, ura
eta kafea*

ONGI PASA BESTAK! **GARBILEKU**
GARBITEGIA - LAVANDERIA

„Alfonbrak, larrua, antea...
denetarik oro har
garbitzen dugu

Sumusa, 2 · 948 637 438 · 31770 LESAKA

INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA

Ongi pasa
bestak!

T. 639 103 305 · BERA

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -

Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ELECTRO. ALZURI

ALZURI
ELEKTRIZITATEA ETA ETXETRESNAK

Bittiria, 33 31770 LESAKA T. 948627531 · 680562629

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASA BESTAK

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

ESKAINITZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

autoeskola

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 · LESAKA
(osasun-zentroaren parean)
BESTETAKO ORDUTEGIA
08:30-13:00

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARAK, ALDIZKARIAK

SARROBE **RAKUNTZAK**

Obra berria

Etebizitzen zaharberritzea

Igogailuen kudeaketa osoa:
· Diru-laguntzen kudeaketa · Obra zuzendaritza · Proiektua

Bittiria Kalea 2, Lesaka | alejosarobe@hotmail.com | Mikel : 639 623 473 | Alejo : 649 980 394

ITURBENA
ONGI PASA BESTAK
kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA

LESAKAKO BESTAK 2015

UZTAILAK 6, ASTELEHENA

12:00 Herriko Etxetik **altxaferoa**. Ordu berean txistulariek, soinulariek, trikitilariak eta haur ttikiak danborradak girotuko dituzte karrikak. **17:30 Tantirumairu Euskal Folklore taldearen erakustaldia** frontoian. **20:00** Peña guztien ordezkariak altxaferoa bota ondoren **danborrada nagusia** abiatuko da. Erraldoi, buruhaundi, danbor-jole, soinulari eta Lesakako bandarekin batera herriari itzulia emanen diote. **Gauean** Musika Plaza Zaharrean.



UZTAILAK 7, ASTEARTEA

08:30 Ezpata-dantzarien meza ixila. **10:30** Udalbatza bertze agintari, Ezpata-dantzari eta Musika Bandarekin batera, Herriko Etxetik elizara joanen da, **Meza Nagusira**. **Ondotik** Prozesioa eta Onin errekararen bi aldeetan **Zubigainekoa** dantza. Berehala, **ikurrin-agurra** zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean. **18:00 Bezperak**. Lesakako Abesbatzak kantatuko du. **Ondotik** Ezpata-dantzarien taldeak mutildantza, neskadantza, aurrekua eta jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean. **19:30 Bertso jaialdia**, Plaza Zaharrean, Arrano Elkarteak antolatuta. (Bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Julio Soto, Xabi Terreros eta Eneko Lazkoz. Aurkezlea: Ioar Tainta. Gai-jartzailea: Bortziritako Bertso Eskola). **Gauean** Musika Plaza Zaharrean Iratzar taldearekin.



UZTAILAK 8, ASTEAZKENA

09:00 Peñen gosaria. **10:00** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. **12:00** Haurrentzako entzierroa Ote karrika - Plaza Zaharra. **12:00** Betizuak plaza zaharrean Elutxa txarangarekin. **16:30** Haurrentzako ikuskizuna Plaza Zaharrean **18:00** Peñen kontzentrazioa peñen jeitsierarako, Pasaia txarangarekin. **21:00** Trikidantz Plaza Zaharrean.



UZTAILAK 9, OTEGUNA

10:30 Haur eta gurasoen danborrada Elutxa txarangak lagunduta. **11:30** Haurrendako entzierroa (Andre Mari Egoitza-Plaza Zaharra). **Egun osoan** Haur ikuskizunak Eltzeta plazan. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **18:00** Esku pilotako partida profesionalak frontoian. **Arratsaldean** Elutxa Txaranga karrikaz karrika. **Iluntze eta-gauean** Joselu Anaiak taldearen kontzertua Plaza Zaharrean.

UZTAILAK 10, OSTIRALA

11:30 Haurrendako entzierroa (Eltzeta plaza-Plaza Zaharra). **11:30** Nafarroako Jotak Voces... Taldearekin Andra Mari Zahar Etxeko lorategian. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrean, Elutxa txarangarekin. **12:00** Gorriti eta bere animaliak Bittiriako plazan. **14:00** Herri bazkaria Eltzeta karrikan. **18:00** Plaza Zaharrean Nafarroako Jotak Voces... Taldearekin. **20:00** Txakaindik jaitsiera, Zortziko doinuarekin. **23:00** Korrontzi&Dantzaire taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. **01:00** Kalera eta Estu ta Larri herriko taldeen kontzertua Plaza Zaharrean.



UZTAILAK 11, LARUNBATA

12:00 Betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **17:00** Haurrendako Euskararen Taupadak ikuskizuna Plaza Zaharrean. **22:00** Anai-Arrebak, Patxuko Nice eta Brot taldeen kontzertuak Plaza Zaharrean. **03:30** Jai-hilak Elutxa txarangarekin.

Dia  Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko **LESAKA** **LESAKAKO DIA**

Plaza Berria, 10 • 948 637 335

iRU BIDE **GORA SAN FERMIN!!!**
Erretegia • Asador

 Biurrana, 3
LESAKA
Tel: 948 637 127


Burbuila
ile-garandegia eta estetika

T. 948 638 004 • Bittiria, 36 behea. LESAKA

 **ERAKUSKETA BEREAN ETxean**

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK- ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIAK

Ongi pasa bestak!

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

Deazigal



ASTORE  **Loreak Mendian** **TERNUA**  **REYEBET**

Ongi pasa Sanferminetan!

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda
Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

GOZOTEGIA
HAIZEA
BOLLERIA
KAFETEGIA
Ongi pasa bestak!



T. 948 63 80 36
Plaza Zaharra, 7
LESAKA

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



Besta alai eta pozgarriak izan ditzazuela!

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 71 52

GORA SANFERMINAK!!!

bortzirudi
inprenta

Kopistegia, rotulazioa, serigrafia, tanpografia, papertegia

948 631 521
bortzirudi@bortzirudi.eu

TALLERES FRAIN

LESAKA · Tel.: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

ARRANO
ostatu

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

ongi pasa bestak!

IZARRA
OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

Lesaka-Bera
AUTOESKOLA

UDAKO ESKAINTZAK

Gidabaimen guztiak
Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera
CAP-ADR ikastaroak

ONGI PASATU BESTAK!

Eztegora, 12 BERA · 948 630 652
Iturrunzubiko plaza, 8 LESAKA · 948 637 870



Jose Luis ETXEGARAI | Lesakako alkatea

«San Ferminetako arratsaldeei bizia eman nahi diegu, bestaz denok gozatzeko aukera izateko»

Ekainaren 13an alkate karguari zin egin eta aurrez, hamasei urtez, ezaguna izan zuen bulegora itzuli da Jose Luis Etxegarai. Hauteskundeetan jasotako emaitzekin «oso gustora» dagoela dio, «ez genuen espero». Karguak baina, erantzukizuna ere berekin dakarrela argi du eta «orain indarrarekin lanean hasi beharko da. Herriak horrelako konfiantza eman digularik erantzun egin behar dugu». Izan ere, «konfiantza irabaztea oso zaila da eta galdu egiten da segidan. Oso zuzen jokatu beharra dago hemen». 2003ra arte izan zen alkate eta ordutik gaur egunera, nabari du alde «politikoki garai desberdinetan gara. Lehen oso denbora gogorretan egon nintzen alkate eta orain suertez egoera hobea da. Iruditzen zait beste modu batera egin litekeela lan».



Jose Luis Etxegarai.

Herrian beharrezkoak diren gauza txikietatik abiatu nahi dutela azaldu digu «Onin erreka garbitzen hasiko gara, uholdeak gertatu eta oso gaizki gelditu baita. Hori zen puntu bat Lesakak oso polita zeukana eta lastima bat da horrela gelditzea». Eta hirigintza proiektuak garatzeko ahalgina egin eta zabor bilketa ere landu beharreko lehenetsun artean daude.

Udaletxeko martxa hartzerako, ordea, bestak datoz ate joka eta San Ferminetako programan aldaketa pare bat ere egin nahi izan dituzte, «hasteko, herritar aunitzek bestetako programa, euskaraz eta gaztelera izatea eskatzen zigan; elebistasuna ziurtatzea. 2011n dena euskaraz egin zen, ondorengo urteetan programa euskaraz egin eta gero gaztelera guztia orri bakarrean laburbiltzen zen. Ez da eraldunen artean egiten den eskaria, euskaldunen artean egiten dena baizik. Konturatu behar dugu gutako aunitz, ez garelako euskaraz alfabetatuak eta hori arazo inportantea da». Euskara bultzatzeko aha-

«Herritar guztiak ahalik eta hobekien pasa dezatela, izaten ahal diren gorroto eta ezin ikusiak ahanztiz. Ea denok San Ferminetan besta giro alaietan mugitzen ahal garen herrian barrena».

MALE-REKA atope!!

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK

KIROL-ARROPA LANEKO ARROPA KAMISETAK TXAPELAK PAÑULUAK BORDATUAK

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190 · male-reka@male-reka.com · Male-Reka

legina eginen duela dion arren, «aldaketak jendeak asimilatzen dituen erritmoan egin behar direla uste dut, inor baztertu gabe».

Egitarauan bertze hutsune bat ere nabari zen bere uestez «San Ferminetako arratsaldeak oso hutsak zeuden, ez zen ekitaldirik izaten. Horren ondorioz, oso gazteentzat edo batere obligaziorik ez duen jendearentzat eginak ziren bestak. Betizuak eguerdian paratzen dira eta arratseko hamabietan musika, tarte horretan ez da ezer izaten eta tabernak ere itxi egiten dituzte. Besta giroa egun osoan zehar nabaritu behar da». Egitaraua osatzea da bere helburua «askotan esaten da alkatetza aldatzean, aldaketa handiak egingo direla, baina gero gauza asko ez da aldatzen. Finkoak dauden ekitaldi batzuk dira San Ferminen oinarria, baina gabezia bat nabaritzen bada konpontzeko saiakera egin behar da».

SAN FERMIN EGUNA, OSOTASUNEAN EKITALDI BAT

Besten bereizgarria, «San Fermin eguna» dela dio, «bere osotasunean ekitaldi bat delako». Azaldu digu ospea zubi-gainekoak duen arren, gauza guztiek badutela bere esanahia, «dantza

bakoitzak badu esanahi zehatz bat, leku eta toki jakin batera begira egiteak ere bai. Batzuetan dantzatzen zaio banderari, beste batzuetan herriari, beste batzuetan pertsonariari». Ezaguna zaio dantza, ezaguna momentua, dantzari edo ikusle gisara, ez baitu sekula hutsik egin «hamaika urtez dantzaria izan naiz, hamasei urtez alkate eta gero zinegotzia. Kontuak atera... ia bizitza osoan okupatua eduki dut San Fermin eguna. Baina milimetrora egun horretan zer egiten den jakiteko aukera ere izan dut, festaren alderdi desberdinak bizi izan ditudalako».

Garai bateko bestak eta gaur egungoak oso desberdinak direla aipatu digu, «aunitz aldatu dira. Lehen egoten ginen San Ferminak noiz etorri esperoan. Orduan dantzatzen zen plaza. Ez zen orain bezala hainbeste jende etortzen kanpotik, herrikoia ziren bai antolakuntza eta baita giro aldetik ere». Gogoan du erraterako, bere adineko neskek gauz ez zirela ibiltzen «musika bukatu orduko, desagertzen ziren denak. Ganberroenak geratzen ginen bertan. Ni Nabaz auzoan bizi nintzen eta hala erraten zen Nabazkoak herrira jaitsi ezkerro bakea bukatzen zela». Gaineratu digu, besta bizitzeko modua denean bezala, eboluzionatzen joan dela «gauza batzuk hobera egin dute baina bertze gauza batzuetan atzera begira jartzea ez legoke gaizki, herri giro hura berreskuratu eta bestak berriro ere denentzat pentsatu izan daitezten».



1972ko argazkia, Etxegarai, beheitiko ilaran, ezkerretik hasita bigarrena da.

Bittiria, 18 - 31770 LESAKA
tel 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
e-posta. otxotekopinturak@yahoo.es

Otxoteko
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA

Ongi pasatu Sanferminak!

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak
ONGI PASA BESTAK!

Biurrana 8 - 31770 Lesaka
948.637.302 619.716.322 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

ORXANGO
estatu

GORRA SAN FERMIN!!

T. 948 638 126
LESACA

KARTAKO BAZKARIAK ETA AFARIAK BAKARRIK ENKARGUZ
Pintxoak · bokatak · plater konbinatuak EGUN OSOAN

Barrio Otsango Pol. Adu 16 - LESACA
Tel / Fax: 948.637.227 Mug: 609.468.871 / 606.938.271

MARITXALAR-ELGORRIAGA
TRANSPORTES-GARRAIOAK

Besta onak pasatu!!!

TXIRULA
LOREDENDA

opariak · bitxiak
enmarkazioak

Albistur 39 LESACA
T. 948 627 542

ONGI PASA BESTAK!

ZOANSA

VW AUDI HYUNDAI SEAT

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA | TXAPA | PINTURA
KOTXEEN SALMENTA
BERRIAK | BIGARREN ESKUKOAK | OKASIOKOAK | KMO

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiga Ind. • 31789 LESACA • zoansa@zoansa.com

oh
HOTEL churrut

Churrut jatetxeak **besta zorionsuak**
opa dizkizue eta urte osoko gure menuak
ezagutzera gonbidatzen zaituzte:

Eguneko menua astelehenetik ostiral eguerdira arte
Asteburuko menuak (25,00 €tik aurrera)
Taldeentzako menuak
Jaunartze, ezkontza... menuak
Menu pertsonalatuak eta neurria egokituak
Sasoiko produktuekin osatutako karta

Foruen plaza | BERA | T. 948625540 | 948625542
www.hotelchurrut.com

LESAKAKO BESTAK 2015

APITTU
ALUMINIO LANAK

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeo itxidurak eta barandilak

GORA SAN FERMIN!

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12.pabilioia | 31770 Lesaka



ongi pasa
bestaki

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -



John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com



Ongi pasa Sanferminak!

Alkaiaga Ind. - 31789 LESAKA
Tel. 948 631 536 Faxa. 948 631 550
E-posta. bacalao@salazonesudana.com
www.salazonesudana.com



Txamukos | Mariatxi taldea

«Mariatxi musikak beti sortzen du zirrara berexi bat, badu liluragarritik zerbait»

Mikel Iriarte lesakarrari iaz Iruñeko mariatxi talde batean egin zuen ordezkapenak piztu zion barruko harra eta «Lesaka eta inguruko jendearekin mariatxi talde bat osatzea pentsatu nuen, ez zirudien gauza zaila izanen zenik». Abuztuan bila hasi, irailan bortzekoa osatu eta ondotik taldeko abeslaria topatu zuten. Horrela sortu zen Txamukos taldea: «Mikel Iriarte, Xabier Arriola eta Egoitz Telletxea lesakarrak, lehenbiziko biak tronpetarekin eta hirugarrena baxuarekin. Arantzatik, berriz, Beñat Mitxelena akordeoiari soinua atereaz eta Jonkoldo Arburua kitarjole moduan. Taldeko ahotsa Fernando Otano da, hau urritixegotik, Oibar-tik, etorria eta Karlos Senper lesakarra soinua teknikari moduan aritzen dena. Aurten gainera, Julen Suarez lesakarrak tronpetarekin ordezkapenak egin behar ditu».

Poliki poliki kantak prestatzen eta moldatzen joan dira «40 kanta inguru eduki arte». Euskal kantu ezagunen bertsio mexikarrak egiten ari dira eta horretaz gain, itsasoaz bestaldeko kantuak ere moldatzen dituzte. Beraien erreperitorioaren oinarrian «Jose Alfredo Jimenez, Pedro Infante, Antonio Aguilar, Vicente Fernandez... abeslari klasikoaren abestiak eta berriagoak diren kantarien abestiak, Alejandro Fernandez edo Luis Miguelenak adibidez edo Mexiko Iparraldeko kutsua duten korri-doak ere badaude».

«Udan harat honatean ibiliiko gara, eskualdean eta baita eskualdetik kanpo ere. Lesakan uztailaren 4an joko dugu Onin erreka gainean».



**ARozTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

JOISA



- Barandak
- Balkoiak
- Ateak
- Hesiak
- Forja artistikoa
- ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com
www.talleresjoisa.com



JAVIER ALZUGARAI S.L.U

Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAKI!



Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com

Mariatxi musikak «**badu liluragarritik zerbait**» diote taldekideek, «**Mexikoko mariatxiak ikusi eta aditzeak beti sortzen du zirrara berexi bat. Haien janzkera, interpretatzeko daukaten modua, ahotsak, letrak, erritmoak... ikusgarria izaten da**». Gainera, haien kantuetan kontatzen dituzten gauzekin entzulea «**erraz identifikatzen dela**» uste dute.

Jende aunitz erakartzen duen musika generoa dela ere aipatu digute «**Euskal Herrian eta akaso inon baina gehiago gure zonaldean musika mexikarrak jarraitzaile aunitz ditu. Ez da batere arraroa hiru belaunaldi abesti berdina kantatzen ikustea**».

Ez dakigu mariatxi euskaldunak zuzenean ikusteko gogoak bultzatuta edo aurrez zuten afizioak erakarrita izan den baina harrera aparta izan du taldeak «**geronek ere ez genuen espero gure burua maila honetan jotzen aritzea eta ezta jendeari hainbertze gustatzea ere**». Serio lanean azaro aldera hasi ziren eta ordutik «**Arantzan, Lesakan, Sunbillan, Iruritan, Iganztzin... izan gara. Geroz eta gustorago egoten gara oholztan eta gozatu egiten dugu. Hagitz ilusionatuta gabilta**».

Plaza eta egoera perfektuaz galdetuta «**otorduren baten inguruan hagitz ongi gelditzen den musika**» dela diote «**bazkalondo edo afalondoan, jendea kontent dagoen momentu horretan, entzulego edo ikuslegoa piztu egiten da eta kantari hasi. Orduaren arabera jendearen erantzuna desberdina izaten da**». Baina hori bai, «**normalean kantura dantzara baino gehiago animatzen da jendea abestiak ezagunak zaizkielako**».

Orain arteko denbora laburrean lortu duten ospea ikusita, «**diskoarena nahiko present dagoen ideia bat**» dela diote, «**seguruenik negu aldera ekingo diogu horri, beraz, bai diskoa grabatzeko asmotan gara**».

Mariatxi bezelakoak, badute juergista fama eta beraiek ere aitortu digute irrika «**gezurra erranen genuke ur minerala bakarrik edaten dugula erran ezker**». Baina momentu bakoitzean dagokiona «**juergazaleak gara baina jotzeko orduan zintzo demonio!**». Festa aldatu egiten baita eszenatoki gainean edo behegian egotean, «**taldekide denak Txamukos osatu aitzinetik talde desberdinetan ibili gara eta ongi ezagutzen ditugu bi aldeak. Jotzen ari zarenean konpromiso bat hartuta daukagu eta horri behar bezala erantzun behar zaio, behin lanak akaututa... bertze gauza bat da**». Ez dira alferrik galtzen eta hala diote, «**egia dena da oholta gainean ere besta egin daitekeela, hagitz besta berezia eta polita**».

UDA BATETIK BERTZERA

Datozen hilabeteetan mariatxi doinurik ez da faltako bazterretan, «**udan harat honatean ibilko gara eskualdeko zenbait herritan eta eskualdetik haratago ere bai. Tartean, behin baino gehiagotan, gure plaza izan den Arantzan egongo gara**». Lesakan uztaillaren 4an joko dute eta «**lehendik herrian arituak garen arren, oraingo honetan desberdina izanen da kanpoan joko dugulako, Onin erreka gainean**». Lekuak eta espazioak «**errespetu pixka bat**» eman arren, «**gogoz**» dabilta eta «**lesakarrek gurekin disfrutatuko dutelakoan gaude**» gaineratu digute. Gonbidapena luzatua dago beraz, kantuan eta dantzan ongi pasa nahi dutenak tronpeta, gitarra, akordeoi... doinuei segi eta batu bestara!

Etorri Lesakako instalaziora, eta gozatu dauden aukerekin!
ONGI PASA SAN FERMINAK!!



 T. 948 637 400
kiroldegia@lesaka.eus
www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com

 **TRANSTXAKAIN**
TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKOTXAKAIN S.L. 

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • LESAKA
transtxakain@yahoo.es



ONGI PASA BESTAK!

«D»

◀◀◀◀ **H I R U K I D E** ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

 **kattagorria**
lenteria mertzeria

Peñen blusak
Jantzi tipikoak

%10 dantza taldeentzat
eko deskontua

Ezagutu gure online denda!
www.kattagorria.com
Beheko plaza 10 Lesaka T. 948 627 514

Ongi pasatu bestak!

 **iplANAK MAKILAN**
Igeltseritza orokorra · Teiltuak · Etxe berriak · Zaharberritzeak · Harritzko harresiak · Termoarzilazko harresiak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

FATXADAK SATE SISTEMAREKIN

- KANPOTIK KORTXO NATURALAREKIN ESTALJAK
- ENERGIA-ERAGINKORTASUNERAKO KONPONBIDEA
- AURREZTEA ENERGIA ETA BEROGAILUAN



POLIETILENOZKO EDUKIONTZIAK

- MENDI-HEGALAK EGONKORTZEKO
- MENDIKO PISTA ETA BIDEETAN LUR-JAUSIAK EUSTEKO
- DIKEAK: UHOLDE KASUETARAKO
- BARATZEAK, LUR EREMUAK, INDUSTRIA-NABEAK, etab. BABESTEKO

Otsango Ind. 8 LESAKA · Bulegoa 948 637 534 Lan tokia 606 383 759 · 608 235 172 · makilansl@gmail.com

BORTZIRIAK

GERTAERAK → BERAN ETA LESAKAN

Konposta egiteko etxoletako oholak ebatsi dituzte

Bortzirietako Hondakinen Mankomunitatea kexu agertu da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak salatu du Bera eta Lesakako konposta egiteko etxoletako oholak ebatsi dituztela eta ondorioz, konpost-gune horiek egoera tamalgarrarian daudela.

Auzo handienetan borondatezko parte-hartzea handia izan zenez, konpostagailu arruntan ordez, egurrezko etxolak ezartzea erabaki zuen Mankomunitateak, herriaren estetikarekin ere bat datozenak. Etxola horiek egurrezko oholez erai-ki ziren eta konpostatze prozesua aitzinera eraman ahal izateko beharrezkoak ziren, konposta ondu bitartean gelaxkak ixteko erabiltzen baitira.

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko kalkuluen arabera, 40-50 oholak inguru eraman dituzte. «Nahiz eta hondatuak ordezkatzeko materiala eduki, une honetan ez dugu kalte hau moldatzeko behar adina. Hori dela eta, lehenbailehen konpontzen saiatuko bagara ere, denbora bat beharko dugu aitzineko egoerara bueltatzeko». Guzti honek, borondatez konposta egiten duten bizilagunen lana oztopatu eta zailtzen du. Hori gutti balitz, Mankomunitaterentzat ustekabe-ko gastua suposatzen du, zeinek zuzenki herritarren zabortasan eragina baituen. Hori horrela, gutti batzuen ekintzek denoi kalte egin digutela salatu dute.

Hau denagatik, bizilagunen parte-hartzea eskatu dute aurrerantzean horrelakorik errepika ez dadin eta konpost-guneak behar bezala zaindu daitezzen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Konposta egiteko etxoletako bat, Lesakan. Oholarik gabe, egoera tamalgarrarian gelditu direla salatu du Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak.



UTZITAKO ARGAZKIA

PareKide taldea aurkeztu dute Lesakan

PareKide taldea aurkeztu zuten ekainaren 13an Lesakan. Plazan argazkia atara eta gero, poteo-showa egin zuten, parekidetasunaren alde ariko den talde hau ezagutzera emateko. Etorkizunera begira, taldearen ideia gauza berriak eskaintzea da, parekidetasunaren gaia ikastaro eta ekintza ezberdinekin landuta. «Denon taldea izatea nahi dugu -diote-, denok PareKide izatea nahi dugu. Berez, orain 5 gazte hasi garen arren, gure ideia talde ireki bat izatea da. Edozein ideia eta proposamenera irekita gaude, eta poliki-poliki joanen gara egin nahi duguna zabaltzen eta ekintzak zehazten».



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

SMAZIZIOR
edariak

T/F: 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

Anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602



ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

GIZARTEA → EKAINAREN 13AN HARTU ZUEN KARGUA

Josu Iratzoki izanen da berriz ere alkate

Halere, kargu-hartze ekitaldian German Castilloren bozka kopuru bera jaso zuen



UTZITAKO ARGAZKIA

Marisol Tabernaren eskutik jaso du lekukoa Iratzokik.

Oihan enkantea

Oiarno inguruko oihan aprobetxamendua enkante publiko bidez emanen du Udalak, plegu itxiko sistemarekin. 2.137 insignis pinu sartzten dira enkantean (2.536 metro kubiko eta 634,01 metro kubiko sugur ematen dutenak) eta hasierako prezioa 74.813,11 eurokoa da. Hasierako fidantza 1.496,26 eurokoa da.



TTIPI-TTAPA

Udal hauteskondeetan hameka zinegotzietatik 6 lortuak zituela kontuan hartuz, ez zen ezusterik izan eta Josu Iratzoki EH Bilduko zereन्द्रaburua aukeratu zuten alkate. Halere, talde honetako zinegotzi bat oporretan zela eta UPNko Juan Losak botua German Castillori eman ziola kontuan hartuz, bozketan bosna boturekin berdinduak gelditu ziren EHBildu eta Herrirako taldeko alkatetegiak. Dena dela, talderik bozkatueneko buru bezala, Iratzoki izanen da alkate.

Ba al zenekien

Joan den urtean Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izan ondotik, aurten lehen fasean kanporatu dutela Berako pilota taldea Nafarroako Herriarteko pilota txapelketatik. Sei herritik lau sartzten ziren finalerdietan eta Bera bosgarren izan zen, lesioekin suerte txarra izan ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Altzateko bestak giro ederrean

Urtero bezala, giro ederrean ibili dira Altzateko bestetan, nahiz eta ortziralean eta larunbatean eguraldi kaxkarra izan. Aunizetan, giroak ez du eguraldiarekin zerikusirik eta kontzertuetan jende aunitz bildu zen. Larunbateko zikiro jatean ere giro polita izan zen Altzateko karrikan eta horretan lagundu zuen Elutxa txarangak. Igande eguerdi eguzkitsuan egin zituzten plazako dantzak, meza ondotik. Entzierro ttikia eta karrikabuelta ere izan zituzten, txistulari, erraldoi eta buruhandiekin. Igande arratsalderako ere txarra emana zen, baina eguraldiak dexente errespetatu zituen puzgarriak, aurpegia margotzeko tailerra, bonba japoniarrak, funky emanaldia eta gainerako ekitaldiak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestaberri Egunean bandera dantzatu zuten

Ohiko itxura dotorearekin agertu ziren herriko karrikak Bestaberri egunean, iratze, lore eta maingire zuriz ederki apainduak. Aurten lehen jaunartzea egin duten neska-mutikoak prozesioan ibili ziren eta Santiago Alzuguren zinegotziak bere azken bandera dantzak eskaini zituen.

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behe 31780 BERA
t 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

ALZURI
ETXERAKO EDERTASUNA
ASTONDO

DROGERIA • MENAJE
DENDA ESPEZIALIZATUA
948 625 442
San Esteban 17 • BERA

Parvitas
Viverificadas
BRANDONEA, s.l.
FRUTAS Y BARRAS DE CACAO

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasso, 76 - atea 21-22
31780 BERA

LESAKA

KULTURA → UZTAILAREN 3AN FRONTOIAREN GIBELEKO APARKALEKUAN

Disney Fantasy kontzertua musika bandaren eskutik

1.500 eserleku prestatuko dituzte eta sarrerak 5 eurotan salgai daude

Aitor AROTZENA

Azken urteetako oihurari utsiz, Sanferminen aitzinetik emanaldi berezia eskainiko du Udal Musika bandak. Aurtengoan Disney Fantasy kontzertua joko du uztailaren 3an, ortzira-lean 22:00etan frontoiaren gibeletako aparkalekuan. Disney filmetako soinu bandak joko dituzte, film hauekako pertsonaiez mozorratuko diren abeslariak lagun dituztela. Horrez gain, 4 antzezlek familia bat irudikatuko dute, abestiak lotuz. Aitzinetik, 18:30ean haurren kalejira izanen da, Mickey eta Minnierekin. Sarrerak 5 eurotan sal-

gai daude Zialdo, Koxkila, okindegia, Telletxea eta Xagun eta Berako Xuga, Errekalde eta Garbicoffen. 2 urte baino tikiagoek sarrera doan izanen dute.

Hitzaldi-proiektzioa Nepalekin elkartasunean

Manttale Mendi lasterketa taldeak ere bat egin du Beti Gazte elkartearen 75. urteurreneko ekitaldiekin eta Nepalekin elkartasunean *Agerratik Himalaiara* hitzaldi-proiektzioa eskainiko dute Ana Larretxea, Sabino Korta eta Patxi Pikabeak ekainaren 27an, 20:00etan Harri-ondoan. Sarrera 5 euro kobratuko da eta lortzen den guztia Nepa-

leko lurrikaretan kalte-tutakoei bideratuko zaie.

Kirodegiko ostatuaren esleipena

Udal igerilekuetako ostatua lehiaketa publiko bidez hartzeko aukera zabaldu du Herriko Etxeak. Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 15ean bukatuko da. Esleipena jasotzen duenak 40.000 euro + BEZa ordaindu beharko du. Sei urtetaroko esleipena izanen da, eta sei urte horietan ez du errentarik ordaindu beharrik izanen. Ostatua eta sukaldea egiteko lanak Udalak egingen ditu esleipen honetan jasotako diruarekin.



Ba al zenekien

Nafarroako Gobernuak antolatutako bizikidetza hobetzeko VII. kanpainaren baitan "Zurekin jolasten bagara, ongi jolasten gara" jolas kooperatiboan lehiaketa irabazi duela Tantarumairu ikastolak.



UTZITAKO ARGAZKIA

XXXII. Txoko-Txiki lehiaketako sariak

Tantarumairuk antolatutako XXXII. Txoko-Txiki lehiaketan, ipuinetan Hegoi Silveira, Ibon Ruiz (Nora Maritxalarrek aipamena), Lexuri Arotzena, Imanol Mesa (Peio Iturriak aipamena), Orti Arotzena eta Manex Ramos eta ilustrazioetan Ainitze Martinez, Maitane Erkizia, Ekiñe Salgado, Garazi Ubiria, Naroa Garbisu eta Mattin Lekuona izan ziren saridunak.



ARGAZKIA: JJ GUERRERO

Ezagutu Dezagun Lesakako sariak

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 5ean. LH1-2n Beñat Criado, Beñat Etxepare, Ainitze Martinez eta Amairu Martinez; LH3-4n Naiara Ubiria, Iosu Zubieta, Beñat Etxabide eta Oihana Arruti eta LH 5-6n Orti Arotzena, Ane Ordoki, Naroa Bertiz, Ane Agirretxe eta Naroa Garbisu izan dira saridunak.



ARGAZKIA: JJ GUERRERO

Elias Garralda III. Margoketa azkarreko lehiaketa

Helduen artean, bi sariak Bergarara joan ziren: Juan Jose Altunak eskuratu zuen lehena eta bigarrena Antonio Arrillagak. Herriko margolari onena Raquel Arlegi izan zen. Umeen artean, LHko 1-2n, lehen saria Peru Urrak eta bigarrena Leire Ariztegik. LH 3-4n, Berako Amaia Prietok eraman zuen lehen saria. LH 5-6n, lehen saria Imanol Ugaldeberek eta bigarrena Kenneth Abuinek.



ARGAZKIA: XAGU

Beti Gazte Eguna arrakastatsua

Beti Gazteren Eguna berezia izan zen ekainaren 6an, 75. urteurreneko ospakizunen baitan. Goizean goiz, mendizaleek beraien itzulua egin zuten, baina ikusminik handiena Mastegi futbol zelaietan piztu zen. Garai bateko eta orain arteko futbolarien arteko partidak jokatu zituzten, bai gizasemeek baita emakumeek ere. Gero, 200 lagun bildu ziren bazkarian eta bazkalondo animatuan.

GIZARTEA → UZTAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN 31RA

Turismo Bulegoa zabalik egonen da bi hilabetez

Bisita gidatuak
uztailaren 18tik
aitzinerara izanen
dira

Irune ELIZAGOIEN

Aurreko urteetan bezala, aurten ere turismo bulegoa martxan egonen da udan. Miren Bizente izanen da arduraduna eta berarekin batean Iñaki Tomasena egonen da laguntzen, bertan egingen baititu bere ikasketen praktikak. Uztailaren 1etik 17ra

goizeko 10:00etatik 13:30era eta arratsaldean 16:00etatik 19:00etara egonen da zabalik (asteburuetan itxita). Uztailaren 18tik abuztuaren 31ra berriz aste-tartez 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara eta asteburuetan 10:00etatik 13:00etara. Bisita gidatuak berriz, uztailaren 18tik aitzinerara izanen dira, astetartez arratsaldeko 19:00etan (astelehenetan ezik) eta asteburuetan eguerdiko 13:00etan.



ARGAZKIA: MIREIA MARTINEZ

Haurraren Eguna

Antolatutako ekitaldi guztiek arrakasta handia izan zuten Haurraren egunean.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Orabideko Kortariko Bordako gasnak irabazi du XXIII. lehiaketa

Altxata elkarteak antolatutako XXIII. gasna lehiaketa ospatu zen ekainaren 7an. Denetara 14 gasna aurkeztu ziren eta Orabideko Kortariko Bordako Julen Arburuak irabazi zuen lehen saria; 120 euro. Bigarren saria (90 euro) Etxalarko Basatekobordako Ixidro Ariztegik lortu zuen eta hirugarren saria (75 euro) ere herrian gelditu zen, Intzeko Bordako Jostxo Ariztegiren eskuetan. Etxalarkoen artean, lehenengo saria (50 euro) Jorge Arizaleta (Urtsua baserrikoak) eraman zuen eta bigarrena (30 euro) Aldalurkobordako Kontxi Antxorenak. Honez gain, II. Goxo topaketara zazpi sagar-tarta aurkeztu ziren eta guztien artean lote bat zozketatu zen. Hau Amaia Razkineri tokatu zitzaion. Eguraldi ederra lagun, jende aunitz ibili zen herrian eta eguneko bertze ekitaldiak ere hagitz arrakastatsuak izan ziren.



ARGAZKIA: AMAIA AGIRRE

Gantxillo Eguna

Maiatzaren 22an ospatu zen kalean gantxilloa egiteko eguna eta elkar proiektu bat ospatu zen; herriko etxearen aitzinean dauden piboteetan jartzeko panpinatxoak. (Hurrengo egunerako desagertu ziren). Honez gain lehenengo urteko elkar proiektuan egindako kojina ere moldatu zuten eta Kultur etxe azpiko bankuan jarrita dago.

FLASH

Kooperatibako batzarra

Usoa kooperatibako urteko batzar orokorra ekainaren 26an izanen da 19:00etan Kultur etxean. Ondotik afaria egingen da 21:00etan La Basque jatetxean eta horretarako kooperatiban izena eman behar da. Bertze aldetik, kanpoko aldean haibertze urtetan ikusi diren kendu dituzte, gehiago ez direlako erabiliko.

Sute elkarteak

Sute elkartearen urteko batzarra ekainaren 28an izanen da goizeko 10etan kultur etxean. Aitzineko egunean, ekainaren 27an goizeko 10etan kultur etxean estintoreen errebisioa egingen da.

saroha[®]
gozotegia okindegia

p^o de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99
www.sarobe.net

USOA
Nekazari
kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

**KALEFAKZIOA eta
IBILGAILUENDAKO
GASOLIO MERKEENA**

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA
EKOLOGIKOA
ENEK

INSCRIPZIO ZENBAKIA
1435

ARANTZA

GIZARTEA → EKAINAREN 27AN

Txorien kantak ezagutzeko ibilaldia egingen da larunbatean

Bidazi elkarteak antolatu du

Nerea ALTZURI

Aunitzetan, goizean iratzarri eta leihoa irekita, etxe atarira aterata, mendira itzulixka ba egitera joaten garenean... txorien kantuek urratzen dute isiltasuna. Batzuetan, txorien ele musikatueta erreparatzen dugu bertze gauzetan pentsatzen ez bagara ari behintzat.

Bidazi elkarteak larunbat honetarako txorien kantak hobeki aztertzen ikasteko ibilaldia antolatu du. Goizeko 9:30etik 12:30era izanen da. Lehenengo orduan baskulan azalpen batzuk emanen dira eta ondotik ibilaldia egingen da. Ikastaro edo tailerraren emalea, Mikel Olano Gipuzkoako aldundiko basoizan bat da eta lehendik ere, Aiako Parke Naturalean adibidez, gisa honetako ikastaroa eman izan du. Ikastaro honetan parte hartuko dutenek, txorien gida liburu batekin eta kataloxekin joanen dira.

Aitzinetik izena eman beharra zen eta plaza mugatuak ziren. Oraindik lekurik badagoen edo ez jakiteko, Bidaziko herriko bazkideren batengana jotzea izanen da hoberena.

Udaleku irekiak

Urtero bezala, Bortzrietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu. Harrera ezin hobea izaten dute udalekuek eta mankomunitateko web orrian azaltzen den moduan, udalekuak antolatzeko helburu nagusia da neska-mutikoei udako oporraldietan eta aisialdia bezalako eremu informal batean euskaraz gustuko dituzten ekintzak eskaintzea. Bertzaldetik, gaur egun udaleku hauek funtzio sozial bat ere betetzen dute, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoentzat abantaila delako horrelako eskaintza bat izatea. Arantzan udalekuak uztailearen 6an hasiko dira, eta uztailearen 31ra arte arituko dira. Udalekuak astelehene-tik ortziralerara izanen dira, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte.



ARGAZIAK: GURUTZE PIKABEA

Udal berria

Hainbat herritan bezalaxe, joan den ekainaren 13an, udal berriaren kargu hartze ekitaldia izan zen. Argazkietan, udal-talde berria eta Ander Almandozek Juan Migel Almandoz alkate makila ematen dion momentua ageri dira.



ARGAZKIA: JOXE GOÑI

Bestaberi eta komunioak

Ekainaren 7an, bestaberi eguneko ohiko elizkizun eta prozesioaz gain, sei neska mutikoren jaunartzea izan zen. Oihan, Egoitz, Bihotz, Eneritz, Xuban eta Izaro gaztetxoak; Martin Legarra apeza eta Ixabel Danboriena mezan ere irakurgaietan lagundu zuena ageri dira argazkian. Elizkizun polita izan zen. Hainbat herritarrek parte hartu zuten egun honen prestaketan eta elizkizunean berean. Mezari akabera emateko, esker onak adierazteko, habanera bat kantatu zuten komunioa egin zuten gurasoek.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auza - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

GIZARTEA → EKAINAREN 13TIK AITZINERA

Eguraldiaren laguntzarik gabe irekiak daude udal igerilekuak

Arantzakoek ere herrikoen prezio berak izanen dituzte sartzeko

TTIPI-TTAPA

Udal igerilekuak irekita daude ekainaren 13az geroztik, baina azken urteetako ohiturari eutsiz, eguraldiak ez du batere lagundu lehen aste hauetan. Beharrik aurtengo tabernarietako pintxo goxoak prestatu zituztela, eguraldiak eskaintzen ez zuzena beraiek emanaz.

TARIFA EZBERDINAK

Bonoak eta sarrerak erosteko tarifari dagokionez, denboraldi osoko abonua 18 urtetik goitiko herrian erroldatutakoek 45 euro ordaindu beharko dituzte eta erroldatuta ez daude-

nek 70 euro; 11-18 urte artekoek 28 euro herriarrek eta 43 euro herrikoak ez direnek eta 4-10 urte artekoek 18 eta 29 euro, hurrenez hurren. 4 urtetik behe-tikoek doan izanen dute. Dena den, denboraldiko abonua eskaera egiten den hilabetearen arabera kobratuko da, beraz uztailaren 13tik irailaren 13ra guttixea-ko ordaindu beharko da (erraterako, helduek 35 eta 56 euro) eta abuztuaren 13tik irailaren 13ra oraindik guttiago (helduek 22 eta 35 euro). Egun bateko sarre-ri dagokionez, 6 euro ordaindu beharko dute helduek, 4 euro 11-18 urte artekoek eta 3 euro 4-10 urtekoek. Arratsaldeko 5etatik aitzinera erdia ordaindu beharko da. Taldeentzako prezio bereziak izanen dira eta eguneroko sarre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Maria Jesus Telletxeari omenalditxo eskolan

26 urtez eskolako sukaldari izan ondotik, azken lan eguna izan zuen ekainaren 12an Maria Jesus Telletxeak. Ikasturte bukaerako bazkariaren ondotik, bertsoak eta oroigarriak oparitu zizkioten ikasleek, trikitixaren laguntzaz. 13 urtez jangelako laguntzaile izan den Blanki Hitak ere lana utziko duenez, bera ere agurtu zuten. Korpus Txoperena eta Itziar Rojo izanen dira bere ordezkakoak.

retan euro bateko deskontua eginen da sarrera bakoitzean. Familia ugariak ere %20ko deskontua izanen dute.

Aurten ere, Udalak Arantzako udalarekin bertako biztanleek Igantziarrek dituzten prezio bereziak izatea adostu du. Gainera, eta Herriko etxeko ostalua eta jatetxea prestatzen dituzten bitartean, eta itxia izanen diren egunetan, igerilekuetako ostalura sartzeko ez da sarrerarik kobratuko. Horrela bazkaldu, afaldu edota trago bat hartu nahi duenak aukera izanen du.

SAN JUANAK IRRISARRI LAND-EN ESKUTIK

Irisarri auzoko bestak berreskuratu dituzte egunotarako

IrriSarri Land parkearen eskutik, Irisarri auzoko San Juan bestak ospatuko dituzte. Astearte arratsaldean botatzekoa zuten txupinazoa, San Juan suak piztu eta bertso-afaria egiteko. Egun handia ekainaren 24an, San Juan Eguna da. San Juan Xarreko mezaren ondotik, agintarien bazkaria eta bazkalondan dantzak izanen dira. Ekainaren 25ean, Bidasaldeko anfitrión topaketa eginen dute, inguruan ostatu ematen dutenen elkar ezagutza bultzatu nahiz. Ortziral arratsaldean bizikleta jautsiera izanen da eta gauetz Dirt Jump jaialdia. Larunbatean herri kirol erakustaldia, kontzertuak, zikiro-jatea eta *Yrisarriko Palioa* jokatu da, bortz herrietako herri bakoitzetik zaldi eta zaldun banarekin eginen den lasterketa. Igandean, artzain zakur lehiaketa, Makil-jokoa, herri bazkaria eta dantzak izanen dituzte.

YRISARRIKO BESTAK 2015

IrriSarri Land-en Ekainaren 23tik-28ra
San Juan Sua, dantzak, kontzertuak, herri kirola, zikiro, artzain zakur txapelketa, zaldi lasterketa, jeitsiera txapelketa...

IrriSarri
LAND
Zure lurraldea

SUNBILLA

GIZARTEA → ASTEBURU KULTURALEAN

Ikasturte emankorra agurtu dute eskolan

Haur Hezkuntzakoak Zugarramurdi izan ziren

Maidar PETRIRENA

Ekainaren 19an eskola akitu dute eta horrekin batera kurtso bukaerako irteera egin dute Haur Hezkuntzako neska-mutiko ttikiek, Narbarteko eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailakoekin. Zugarramurdiko Graxiana aterpean egon ziren ekainaren 8an eta 9an. Bertan ekintza ezberdinak egiteko tarte izan zuten, eskulanak, akelarrea kobazuloetan... Eguraldiak ederki lagun zien gainera.

Bertzetik, ikasturtean landu dituzten margolari (Joan Miró, Agustín Ibarrola eta Magdalena Giese) ezberdinen lanak ere ikusgai jarri zituzten frontoiko gela batean. Zernolako museo ttikia ikusteko aukera



ARGAZKIA: SUNBILLAKO ESKOLA

Ttikienek Zugarramurdi aldean bi egun eman zituzten gustora.

izan genuen! Zorionak ikasle eta irakasleei, lan bikainak.

UZTAILAREN 4AN

Mus tximista txapelketa jokatu dute Ariztigain kanpenean

Mus tximista txapelketa antolatu dute Ariztigain kanpenean uztailaren 4an, 16:30etik aitzinera. Izen ematea uztailaren 3ra bitarte egiten ahal da telefonoz edo egunean berean 16:15etik aitzinera kanpenean, pertsona bakoitzeko 10 euro ordainduta. Sari potoloak izanen dituzte: txapeldunek 320 euro eta txapela; bigarrenek 160 euro eta afaria, hirugarrenek 80 euro eta ardoa eta laugarrenek 40 euro eta ardoa. Bosgarrenetik zortzigarren postura 20 euro eta ardoa izanen dute eta 9-16 postukoek ardo botila bana.



ARGAZKIA: SUNBILLAKO ESKOLA

Goitik beheiti, Museo Ttikian hiru urtekoen gelakoak, lau urtekoen gelakoak eta bost urtekoak. Ikasturtean landu dituzten margolari ezberdinen lanak zintzilikatu zituzten frontoiko gela batean.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Bestaberri Eguna

Ekainaren 7an ospatu zen Bestaberri eguna, eguraldia lagun zela. Ohitura jarraituz mezaren ondoren bandera dantzatu zuen Florentino Gelbentzu zinegotziak. Ondoren prozesioa egin zen elizatik atera, Karrika Nagusian barna Txaladabaitan buelta eman eta zubi zaharretik bueltatu. Oso polit eta dotore zegoen jantzita karrika, aldare eta guzti. Bukatutakoan berriro ere banderaren dantza egin zuen. Aurten jaunartzea egin duten neska-mutikoak izan ziren protagonista prozesioan, baita abesbatza eta txistulariak ere.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 26TIK UZTAILAREN 2RA

Xanti Uterga alkateak botako du bestetako lehen suziria

Nahia Ganboa, izanen da udal txikiko alkatea

Marga ERDOZAIN

Ekainaren 26tik uztailearen 2ra burutuko diren San Pedro bestetako hasiera Xanti Utergak emanen dio. Nahia eta berak suziria piztu, bederatzirik hilabete hauetan hauteskunde programa eta lantaldea osatzen lagundu duten guztien izenean botako duela azpimarratu du alkatea.

Programari dagokionez aipatu behar da aurreko udal taldeak prestatutakoa izan dela. Hori bai, programa aurkezteko eta osatzeko, udalak deituta, ekainaren 16an udaletxean bilera egin zen. Herritarrek eta herriko talde eragileek ekarpenak eta ideiak gehitu zituzten. Programa ofizialari (ikusitako Ttipi-Ttapa) haur eta gazteendako ekitaldi gehiago gehitu dira: ekainaren 26an arratsaldeko 6etan entziero txikia; ekainaren 27an, larunbatean, arratsaldeko 5etan Santa Luzia plazan bingoa; ekainaren 28an, igandean, 5:30ean Partxis txapelketa, Casinon; ekainaren 29an, astelehenean, 6etan entziero txikia; ekainaren 30ean, asteartean, goizeko 11:30ean Intzakardin haur-jokoak eta arratsaldeko 7:30ean txistorrada Santa Luzia plazan. Herri bazkariari dagokionez, aipatu behar da parte-hartzea handi-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Alkate izendapenean ezustekorik ez, baina bozketan bai

Ekainaren 13an Udal berriaren osaketak honako argazki hau utzi zuen: Xanti Uterga (EH Bildu) alkatea aukeratu zuten 8 botorekin (6 bere taldekoak eta bertzetik bi PSNko taldeko bi kidek emanak: Rakek Elortza eta Alicia Agesta); PSNko hautagaia, Alfredo Zugarramurdik bere botoa eskuratu zuen. 30 bat lagun bildu ziren eta alkateak, aurreko Udaltaldeko kiderik ez zegoenez, mahaiko lehen-dakariarengandik aginte makila eskuratu behar izan zuen. Aukeraketaren emaitzaren ondorioz, Alfredo Zugarramurdik ekainaren 15ean bere dimisioa aurkeztu zuen, taldekideen babesa jaso ez zuelako. Udalak hurrengo udal-bilkuran dimisioa honi, behi-betikoa bada, oniritzia eman beharko dio. Hori gauzatuko balitz, PSNko zerrendatik bertze kide batek hartuko luke kargua.

tzeko asmotan aurten go menu herrikoia egin nahi dela: 15 euro helduentzat eta 8 euro umeentzat. Bazkaria apuntatu nahi duenak ekainaren 27 baino lehen izena eman behar du Titi ostatuan.

NAHIA GANBOA EGUN BATEZ ALKATE TXIKI

Aurreko urtetan egin den bezala, aurten ere, bestetako aldiriko azalaren marrazki-lehiaketa burutu da eta Itxaso Oizartabal eta Olatz Mububerrira izan dira irabazle. Horretaz gain, udal txikiariaren osaketa dela eta, ekainaren 28an doneztebarrak honako lan talde politaren agindupean egonen dira: alkatea, Nahia Ganboa; epailea, Ander Ruiz; banderaduna, Rafael Carneiro eta zine-

gotziak: Saioa Atxalan-dabaso, Erik Garcia, Saioa Iriarte, Pello Se-

in, Marina Zabala, Eneko Maylin, Laura Ghibanu eta Asier Gelbentzu.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Ibai Meeki omendu zuten Errekaren Egunean

Eguraldiak ez zuten lagundu, baina halere giro ederrean joan zen ekainaren 13an Errekaren Eguna. Izarren eta Errekako seniorren arteko eskubalo partidan, hainbat jokalaririk handi izan ziren eta beterranoen artekoak (argazkian) ikusmina piztu zuen. 200 lagun bildu zituen herri afariaren ondotik, 1976tik hona Errekaren historia erakusten zuten bideo hunkigarriak pantailaratu zuten eta Ibai Meekiri omenalditxoak ere eskaini zioten, Donezteben eta Errekan dituen sustraiak doan lekura doala eramateagatik. Ospakizunak bezperan hasi ziren. Roberto Ordaxek Annapurnako trekkinari buruzko diapositiba emanaldia eskaini zuen. Mus txapelketan 33 bikote aritu ziren eta horien artean Urko Loiarde eta Unai Arozena nagusitu ziren, Fermintxo Jorajuria eta Ibon Rekarteri finalean irabazita.

FLASH

Turismo Bulegoa

Ekainaren 16tik Doneztebeko turismo bulegoa irekia dago. Udalako jarduerak haur irailaren hasiera arte luzatuko da. Bulegoak honako ordutegia izanen du: goizez 11etatik 13:30era eta arratsaldeko 5etatik 7:30era. Astelehenean itxia egonen da. Bulegoko arduraduna Elena Ezkurra da.

Liburuzain berria

Doneztebeko liburutegiak arduradun berria izanen du ondorengo lau urte hauetan. Oraingo arteko liburuzainak, udalako zinegotzi kargua hartuta, batera ezin jarduerak hori udalako jardunarekin. Ondorioz, Udalak pertsona bat kontratatuko du behi-behineko lanpostua betetzeko eta liburutegia itxia ez egoteko. Epe laburrean lau urteko ordezkapena egiteko lehiaketa prozesu bat antolatuko du. Emanen dugu horren berri.

ITUREN

GIZARTEA → 3 ETA 8 URTE ARTEKO HAURENTZAT

Ludoteka zerbitzua izanen da uda honetan ere

Ixiar Bazterrika eta Izaro Ariztegiarekin

Arkaitz MINDEGIA

Herriko gaztetxoek eskolako oporrak hartu dituzte dagoeneko eta udaz goxatzen hasi berriak dira. Beste urteetan bezala, Ixiar Bazterrikak eta Izaro Ariztegiak ludoteka zerbitzua eskainiko dute uztaila eta abuztuan, goizeko 10etatik 13tara Iturengo medikuaren kontsulta zaharrean. Aurreko urteetako esperientzarekin gisa guzietako gauzak antolatu eta eginen dituzte, ateraldiak, eskulanak, dantza... ederki pasako dute adin ezberdinetako herriko gaztetxoek. Apuntatzeko monitorean josten ahal dira ekainaren bukaera arte, beraiek beraien taldeak eta antolatzeke.

Bestetako kartela

Ekainaren 17an bukatu zen bestak iragarriko dituen kartela aurkezteko lehiaketa. Bost kartel aurkeztu dira eta Iturengo Ostatuan egon dira, jendeak bozkatzeko aukera izan baitu. Hurrengo alean agertuko dugu irabazlea.

Berregi bikain

Ibai Berregi fuerte dabil mendi lasterketa eta lasterketetan. Behobia-Donostia egin ondotik gogotsu hasi zen: Berako maratoi erdia, Goiztrail, eta azken aldian Urumeako 5 Miliak eta Oiartzungo Intxiru trailen (15,5km) parte hartu du. Bietan ederki aritu da, lehenengoan 38. postuan geratuz (29:49ko denbora eginenez) eta Oiartzungoan berriz 54. postuan (ordubete eta 32minutu). Animo eta segi horrela!



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Udal berria lanean hasia da

Ekainaren 13tik lanean ari da udal berria. Herrian zerrenda bakarra aurkeztu zen, beraz indarrean segitzen duen taldea, EH Bildu da. Oraingo legegaldian, aitzineko alkate bera izanen da, Marijoxe Bereau. Berekin batera aurreko legegaldian bezala, Karmelo Aioroa, Mikel Gereka eta Jagoba Manterola edukiko ditu eta hiru aurpegi berri ere izanen dira zinegotzien artean: Jabier Bereau, Izaskun Altzu eta Joxe Mari Altzuri. Legeak hala agintzen duelako zin egin zuten.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Mendaur Trikitixa eskolaren ikasturte bukaera

Mendaur trikitixa eta pandero eskolak ere akitu du ikasturtea. Ekainaren 10ean egin zuten ikasturte bukaerako jaialdia.

ORBELA
SENDERISMO ATERPEGIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

Jende aunitz bildu zen Bertizko Ate Irekien Egunean

Nazioarteko Ingurugiro Egunarekin bat eginez

TTIPI-TTAPA

Eguraldi eguzkitsu bikaina lagun, jende aunitz bildu zen ekainaren 7an Bertizko Natur Parkeko Ate Irekien Egunean, Nazioarteko Ingurugiro Egunarekin bat eginda. Eskualdeko eskulangileen eta nekazaritza elikagaien azoka ikuskatu ahal izan zuten egun osoan eta inguruko aisialdi enpreseskaintzen dituzten

hamaika aukerak ere ezagutzera eman ziren.

Zonaldeko erakunde eta talde desberdinak Bertizko egun hontan parte hartu zuten beren aktibitateak erakutsiz eta honela, haurrentzako birziklapen saioak, txori kanten tailerra, kanpoan egindako pintura saioak, argazkilaritza erakusketa, herri kirol erakustaldia Larretxeatarren Baztan-Bidasoa herri kirol taldearen eskutik; Lorategi Historikoko-Artistikoan, Bertizko Jauregian eta basoan zehar bisita gidatuak ikusi eta egiteko aukera eskaini zuten.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Inguruko eskulangileen eta nekazaritza elikagaien azokan jendea ibili zen, baita lorategian, jauregian eta basoan barna egindako bixita gidatueta ere.

GERTAERAK

Iñaki Indart legasarraren heriotzaren ikerketaren baitan bere aita atxilotu zuten ekainaren 16an

TTIPI-TTAPA

2008ko martxoan desagertu eta 2014ko abenduan Gazteluko Legarreko zuloan hilik agertu zen Iñaki Indart Ariztegi legasarraren heriotzaren ikerketaren baitan bortz lagun atzeman zituen Foruzaingoak ekainaren 16an. Horietatik lau abudo aske utzi zituzten, baina hau idazterako orduan, hildakoaren ai-

ta, Jose Antonio Indart, oraindik atxiloturik dago.

Foruzainek familiaren etxea maitu zuten ekainaren 17an Legasan eta Legarreko zuloa ere begiztatzen aritu ziren. Kasua sumario sekretupean badago ere, badirudi ikerketa familiaren inguru hurbilean egiten ari direla, nahiz eta ez dituzten bertze hipotesiak baztertzen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak
edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

Txoko politenak eta gazta onenak aukeratu dituzte Bestaberrin

Bederatzi gazten artean Azkuntzolota baserrikoak irabazi zuen

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberrin egunean gazta lehiaketa eta herriko txoko politenaren lehiaketak egin dituzte aurten ere Zubietan. Igarde arratsaldeko meza ondotik udalak berendutxo eskaini zuen, eta arratsean sari banaketa egin zuten, gazta dastatu bidena-barkoan. Herriko musikariek, trikitilariek eta panderojoleek giroa jarri zuten plaza inguruan.

Gazta lehiaketari dagokionez, bederatzi aurkeztu zituzten eta epaimahaiaren arabera, Azkuntzolota baserritik aurkeztutakoa izan zen onena eta bigarren saria Iriatekobordakoa-erentzat izan zen.

Txokorik politenei dagokionez, aurtengoa lehen aldiz kontuan hartu diren baserrien artean, Elutxa izan zen sariduna eta herrian, lehen saria Amolatx

etxearendako eta bigarrena Arotza etxearendako.

Lehiaketa bateko nahiz besteko irabazleek bi lagunendako otordua izanen zuten Herriko Ostatuan. Orain arte alkate izandako Patxiku Mitxelenak eman zituen sariak.

Prozesioan ere jendea bildu zen. Lehiaketako gaztekin eta berendua egin zen eta arratsalde pasa polita izan zen.

FLASH

Alkate berria

Ernesto Dominguez izendatu zuten alkate ekainaren 13ko batzarrean. Patxiku Mitxelenaren eskutik jaso zuen aginte-makila.

Gaztegunea

Txitxillo gaztegunek ateak itxi zituen maiatzean, haurrak kanpo giroan ibiltzeko. Irailera arte itxia egonen da.

Lehen jaunartzea

Lehen jaunartzea egin duten neska-mutikoen artean Sara Santesteban atzendu genuen. Barkamenak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Amolatx izendatu dute aurten herriko txokorik politena. Beheitan, Azkuntzolotako Mari Mar eta Saioa, Iriarteko Miguelen iloba, gazta lehiaketako lehen eta bigarren saria jasotzen.



ARGAZKIA: ANDREW SMITH

Malerrekako Egunean herritarren partehartze handia

Ekainaren 13an ez zuen eguraldiak lagundu, baina halere giro onean joan zen Uritzako festa. 45 lagun bildu ziren bazkaltzera aterpean. Hamargarren urtea ospatzen zutela eta, aurten Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu bertsolariak aritu ziren eta xaltxa polita jarri zuten, herriko Joxemari Mitxelena eta Olaia Loiartri trikitilari eta panderojolearekin.



6
LOTE
ZOZKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com



GIZARTEA → URTE ERDIAREN ONDOTIK AZKEN OSTALARIAK UTZI DU

Herriko Ostatua errentan hartzeko aukera zabaldu du berriz ere Udalak



Astearte eta ortzegun goizetan izaten da idazkaria

Joseba URROTZ

Urte erdia pasatxo egin ondotik, azkeneko ostalariak utzi dute eta berriz libre dago herriko ostalua. Berehalaxe publikatuko da deialdia, egina ez bada honezkerro, eta informazioa nahi duenak udalera jo dezake. Astearte eta ortzegun goizetan izaten da idazkaria 8etatik 11etara.

Erloju berria ezkildorrean

Aste Santu ezkerroztik ixilik egon ondotik, berriz ere jotzen ditu orduak elizako ezkilak. Udalak bere gain hartu du dexente kostatzen den konponketa lana. Ez da, ordea, urtean martxan izan den erloju bera orain orduak ematen dituena, programagarria den mekanismo elektronikoa baizik. Horrek ahalbidetzen duenez, gaueko 11k jo eta gero, ixildu egiten da, eta goizeko 8etan jotzen du lehenbiziko aldiz. Inork hala eskatu ez badu ere, horrela programatu da, aitzinekoetan ixilarazteko arrazoia hori izan delakoan. Berrirako atsedena hartuko dute hainbat tiki-taka egin ditzuzten zirrika eta penduluak. Ezin hobe errana, goian bego.



GIZARTEA

ARKUPEAK → LAU URTEREN ONDOTIK

Pedro Bañaresek utzi du Arkupeak elkarteko presidente lana

677 euroko superabitarekin bukatu zuen 2014 urtea erretiratuen elkarteak

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak bigarren seihilekoari dagokion boletina banatu du bazkideen artean. Urte bukaera bitarte egin gogo dituen ikastaro eta bidaiak bertan ageri dira eta azpimarratzekoa da irailean Kroaziara egin nahi duena. Beste berri batzuk ere badira, hala nola Tarazona, Tuterara eta Gernikako Azokara egiten dituzten bixitak.

Halere, datarik seinalatuena urriaren 22an eginen den Bazkideen Eguna izanen da. Arkupeak elkarteko 37 bazkidek 85 urte bete edo beteko dituzte aurten, 11 senar-emaztek Urrezko Ezteiak eta bi senar-emaztek 60 urte beteko dituzte ezkondu zirenetik. Ikastaro ezberdinetan izen-emateko datak ere kontuan hartzea eskatzen zaie bazkideei.

Aparteko aipamena merezi dute joan den urteko diru-sarrerara eta gastuek. Krisia eta dirulaguntzen murrizketa hor daude, baina halere, 677,14 euroko superabitarekin bukatu zu-

en urtea Arkupeak elkarteak.

Boletinean Pedro Mari Bañares presidentearen despedida ere ageri da, lau urtez dedikazio osoarekin elkarrearen buru izan ondotik. Zuzendaritza batzordearen eta delegatuen batzarrarekin batera egin dituen hiru berrikuntza dira aipatzekoak: informatizazioa, ordainketa eta kobraketa guztien domizializazioa eta ikastaro eta hitzaldi kopuru handi baten antolaketa. Azken hauek oso harrera ona izan dute eta horren erakusgarri, 2015ean 588 bazkidek eman dutela izena kurtso eta solasaldi horietan. Bihotzekoak eragindako ikaria gaingiditu behar izan du eta orain medikuen deiairen esperoan dago, normaltasunera bueltatuko duen ebakuntza egin diezaioten. Arkupeak elkarrearen alde egindako lan guztia eskertu eta suerte izan dezala opa diote elkarteko kideek.

Zuzendaritza batzorde berria hurrengo delegatuen batzarraren ondotik hasiko da lanean ongibidean eta horren berri emanen dugu hurrengo alean.

Santiago Bidea eta mendi irteerak

Aurreko alean aipatu bezala, Patxadaz tal-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Ekainaren 3an Mendaurrera igo ziren Arkupeak elkarteko mendizaleak.

deak Donejakue Bidea osatu zuen, Foncebadón eta Santiago arteko azken bederatzi etapak egin ondotik. Baztango Bidea egitea falta zaie eta horretan ere hasiak dira, ekainaren 16an Dantxarinea eta Elizondo arteko zatia egin baitzuten. Uztailaren 2an Elizondotik Lantzerara joanen dira eta uztailaren 21ean Lantz eta Arre artekoa eginen dute.

Hileroko mendi irteerakin ere segitzen dute. Azkenekoan, ekainaren 3an Mendaurrera igo ziren. Eguraldiarengatik atzeratu egin behar izan zuten, baina egun horretan ere behelainoa izan zuten lagun. Beharrik Santamariako bazkari dotoreak ahogustu bikaina utzi zien!



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko kideak Monasterio de Piedra inguruan.

Monasterio de Piedra bixita

Ekainaren 4an, Arkupeak elkarteko 126 bazkide joan ziren Monasterio de Piedra, ur-jauzi, leze, zuhaitz eta itzalpeko pasealekuz betetako inguru zoragarria bixitatzerara. Bazkalondoan, gaur egun hotel bihurtu den monastegi zaharreko gelak bixitatu zituzten.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Dantxarinea eta Elizondo arteko zatian, euripean.

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ozpina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak


Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrantza likidoa,
ardoa...)



BAZTANGO
UDALA

www.baztangoudala.eus



www.malerrekakomankomunitatea.com



Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

www.bortziriazabor.com



ECOEMBES

www.ecoembes.com

EZKURRA

GIZARTEA → UDALAREN OSAKETA

Julian Gogortzak segituko du alkate lanean

Jaione Zabala izango da alkateordea

Fernando ETXEBERRIA

Ez zen ezusterik izan udal berriaren aurkezpenean eta espero bezala, azken legealdian ere alkate izan zen Julian Gogorza da orain ere alkate, ekainaren 13ko kargu-hartze ekitaldiaren ondotik. Jaione Zabala izango da alkateordea.

Ezurrako bitzita soziala

Adituek diotenez, herri txiki batek bitzita izateko eliza, frontoia eta ostatu-jatetxea izan behar du eta gainera, turistak eta inguruko jendea hurbiltzeko, hostalak, landa etxeak edo aterpeak ere izan behar ditu. Bisitatzea merezi duten lekuak inguruan

izanez gero, askoz hobe. Ezurraren kasuan, azken urteetan bizilagun kopurua asko murriztu bada ere (50 gutxiago azken hamarkadan) bitzita sozial handia duela esan daiteke. Kasik asteburuero etortzen dira kanpotarrak gaua pasatzera edo bidexkatan barna ibiltzera edo Erakurri, Ezkain, Iruñarri edo Basakaitzera igotzera edo Luis eta Reyesen sukaldaritzaz goatzera. Aurtun, Madril, Katalunia, Valentzia, Kanariar Uharteak, Errusia, Alemania, Frantzia, Belgika, Herbehereak, Israel eta Ameriketako (Argentina, Estatu Batuak, Kanada...) nahiz Asiako (Txina, Japonia, Korea...) bisitariak izan ditugu. Ostatuan ekainarako ez ezik, uztail eta abuzturako leku gehienak hartuak dituzte.

Beharbada, krisi eko-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Bataioa eta lehen jaunartzea

Ekainaren 7an ospatu zuten Eratsunen lehen jaunartzea Haritz eta Izarne Mariezkurrena Lasaga anai-arrebek eta gero Barranka ostatuan egin zuten ospakizuna. Ekainaren 14an Mariezkurrena-Pikabea familiaren txanda izan zen, bigarren semea bataiatu baitzuten Ezurrako elizan eta gero, hauek ere bazkaria Barrankan. Aurretik, familia honek Martinen heriotza sufritu behar izan zuen maiatzaren 8an, baina Jose Martin Retegi eta Marina Apeztegiaren alaba den Mariaren lehen jaunartzea ere ospatu zuten maiatzaren 10ean.

nomikoa murrizten ari delako edo jendeak herrietako prezio apalago-

ak nahi dituelako eta gure txokoek eskaintzen duten lasaitasunaz eta


ingurumenaz ere gozatu nahi ditelako gertatzen da hori.

NAFARROAKO GOBERNUAK 51,2 MILIOI EURO INBERTITUKO DITU NAFARROA OSOAN

Eskualdeko hainbat udalerritako ur beltzen eta euri-uren tratamendua ere hobetuko du

Urdazubi, Zugarramurdi, Doneztebe, Ezkurra, Zubieta, Bera eta Baztango udalerrietan inbertituko du

deatutako Nafarroako Ibaiek Saneatzeko Plan Gidariaren bidez, ur-beltzen eta euri-uren tratamendua hobetzeko 51,2 milioi euro inbertituko ditu 150 proiektu baino gehiagotan, datozen sei urteetan. Arazketa edo depurazio bidez, ur beltzen kutsatzaileak kontzentrazio onargarri bateraino kendu edo degradatzearen ondorioz, kutsadura desagerrarazi eta urak berrerabiltzea lortu nahi da.



Eskualdeko hainbat azpiegitura egin edo berrituko dira, tartean Xaretako Urdazubi eta Zugarramurdi; Malerre-kako Doneztebe, Ezkurra eta Zubieta; Bortzirietako Bera; eta Baztango udalerrietan.

Inbertsioak lau jardueralerrotan egingen dira: 500

biztanle baino guttiagoko udalerrietan arazketa biologikoa; 20-25 urteko instalazioak berritu eta eguneratzea; euri-ur eta ur beltzak kontrolatu eta kudeatzea; eta 250 biztanle baino guttiagoko guneeetan beharrezkoak diren jarduerak egitea.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, NILSA enpresa publikoak ku-

GIZARTEA → UDALAK BANDO BIDEZ JAKINARAZI DUENEZ

Iralekuen hitzarmena sinatzeko aukera dute herritarrek

TTIPI-TTAPA

Iralekuen hitzarmenarekin ados dauden herritarrek hau sinatzeko aukera izanen dute Udaletxean. 2015eko urtarrilaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen joan den urteko azaroaren 26an Nafarroako Gobernua hartutako akordioa, Goizuetako herrilurretako ondasunak berreskuratzearen gaineko transakzio hitzarmenaren arau orokorrak onesten dituen. Orain, interesatuek sinaduraren bidez adierazi behar diote udalari aipatutako hitzarmenaren oinarriekin bat daudela eta dagokien hitzarmen konkretua burutu nahi dutela.

Jakoba Errekondo

Jakoba Errekondo ezaguna hurbildu zen



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Gure Esku Dago oihalak plazara

Gure Esku Dago ekimenerako jositako oihalak plazara atera zituzten ekainaren 5ean, festa giroan, Euskal Herriko beste hainbat herri eta auzotan bezala.

ekainaren 13an Zeraingo proiektuaren berri ematera. 60 bat herritar bildu zen eta beren kezkek eta dudak galdezko aukera izan zuten, hala nola, zer egin Goizuetako biztanleria-


ri eusteko edo nola mantendu bizi kalitatea.

Zerainen egindakoan oinarrituta, zenbait aholku eman zituen Errekondok, eta solasadi interesgarria sortu zen. Argi utzi zuen, al-

daketa goizuetarren esku dagoela. Jendea gustura somatu zen, eta zeraingo proiektuak izandako arrakasta ikusita, goizuetan zerbait egiteko ilusioarekin somatu zen jendea.

Mariatxiak plazan

Uztailaren 3an, Elegancia Mejicana taldeak emanaldia eskainiko du plazan 20:30ean. ETB eta Udalak antolatutako saioa izango da eta doan eskainiko da.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Iker Salaberria txapeldun

Ekainaren 10ean jokatutako Labriten Nafarroako kirol jokoetako kadete mailako finala. Iker Salaberria goizuetarra eta Iruleko Jon Mariezcurrrena suertatu ziren txapeldun, Obere-nako Mata eta Cordonbikoteari 22-9 irabazita.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa

Umore ona elkarrekin antolatuz, sukaldaritza makrobiotikoko ikastaroa burutu zen ekainaren 10ean eta 17an. Taldea segituan bete zen, eta gustura egon ziren Gorka Gereño sukaldariaren azalpenak eta sekretuak entzuten.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

170 txirrindulari Iskibiko BTT zeharkaldian

Inoiz baino txirrindulari gehiagok (170) parte hartu zuen ekainaren 7an Iskibiko seigarren BTT zeharkaldian. Ibilaldi luzean bi herraniar izan ziren azkarrenak, Jose Mari Patxeko eta Axier Otaño. Zeharkaldi laburrean Jexux Almandoz lesakarra izan zen bizkorrena. Inoiz baino neska gehiago atera ziren, hamar, horietatik bi Alemaniatik etorriak.

LEITZA

GIZARTEA → UDALAREN OSAKETA

Mikel Zabaletak hartu du alkate kargua

Iberori buruzko erakusketa ikusgai dago garbilekuan

JM BARRIOLA

Ekainaren 13an eguerdiko 12etan egin zen Udal berria osatzeko batzar berezia. Hamaita hautetsiek banaka kargua hartu ondoren alkatea aukeratu zuten eta aurreikusia zegoen moduan EHBilduko Mikel Zabaleta izendatu zuten. Herritar asko joan zen batzar aretora babesa eskaini eta zoriontzera.

Iberoren erakusketa

Iberori buruzko erakusketa ikusgai jarri du Aieneko garbilekuan.

Goizuetan egon da aurretik eta orain ekaina bukatu arte Leitza. Bisitariak inguru hartako historia, dorrea eta olazaharraren kontuak ezagutzeko aukera izanen dute. Gainera, antzina-ko burdinaren industriaren inguruko elementuak ere egonen dira ikusgai: mineralak, ikatzak, burdina, hainbat lanabes, ola-langileen lanerako tresnak eta berriak egiten zituztenak. Aipagarriak dira XVIII. mendeko otsoak harra-patzeko zepo erraldoia eta iltzeak. Erakusketa honen helburua herritarrak Iberon burutzen ari diren lanetaz ohartaraztea eta gaiaren inguruko informazioa zabaltzea da.



Ba al zenekien

Ekainaren 28an 19:00ean Atekabeltzen **Euskal Herriko emakumeen mundu martxa** aurkeztuko dutela. Irailaren 28tik urriaren 8ra burutuko da martxa eta Leitza pasako da.



ARGAZKIA: JM. BARRIOLA

400 sagardoze inguru VII. Sagardo egunean

Ekainaren 13an ospatu zen eta euri zaparrada handiak bota zituen arren, jendetza hurbildu zen plazara sagardoa dastatu eta pintxoak jateko asmoz.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Ekainaren 13ko udal batzar berezian osatu zuten datozen lau urteetarako udala.



ARGAZKIA: LEITZAKO IRAKURLE TALDEA

Irakurle taldeak udako atsedena hartuko du

Leitza Irakurle Taldeak kurtso honetako azken saioa ekainaren 3an egin zuen. Miren Agur Meabe idazlearen Kristalezko begi bat liburuaren zuten aztergai eta idazlea bera ere bertan izan zen. Saio honekin eman diote bukaera aurtengo ikasturteari eta urriaren emanen diote hasiera. Taldekideek balantzea ezin hobea egin dute. Denera 7 liburu irakurri dituzte, guztiak euskaraz. Norbaitek datorren kurtsoan Irakurle taldean parte hartzeko interesa balu, liburutegian galdetu dezake. Helburua liburuak irakurri eta irakurritakoaren inguruan taldean hitz egitea da, konpartitzea. Liburuaren idazleekin biltzeko aukera ere izaten da gainera.



ARGAZKIAK: JAIONE OLAZABAL

Areso, Leitza eta Goizuetako eskolen batuketa gauzatu zen eskolen arteko topaketetan

Ni+Zu=GU leloa bete eta batuketa borobila osatu zuten ekainaren 6an Areso, Leitza eta Goizuetako eskolek. Hiru herrietako eskolen arteko topaketen 16. edizioa zen aurtengoa eta aresoarrak izan zuten pesta antolatzeko ardura. Goizeko 11etan hasi eta egun osoan zehar luzatu zen pesta. Eguraldiak ere lagundu zuen eta hala, bildu ziren 200 lagun inguruk plazan bazkaltzeko aukera izan zuten. Jokoak, fanfarre eta txistulariekin kalejira, soka-tira... giro paregabean ibili ziren.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 13. 21 ETA 23AN

Giro bikaina izan da ekainean egin diren ospakizunetan

Josten egunean, Lagun Artekoen pestan eta San Juan gauean

Juana Mari SAIZAR

Atsedean hartzeko ia tarterik gabe, ospakizunetik ospakizunera gabiltza azken aldian. Ekainaren 13an, Josten egunak eta Lagun Artekoek antolatutako pestak egin zuten eta goizean goizetik giro ederra izan zen herrian. Oihalak apaintzen, josten, pintxoak prestatzen... herritar asko aritu ziren eta denera lau ohial zati osatu ziren. Lagun Arteak ere egindako fes-

ta egunaren balorazio positiboa egin du. Basakaitz dantza taldeak saio ederra egin zuen eta eguraldiak ere goizean lagundu zuenez, ekitaldiak plazan egiteko aukera izan zuten. 130 lagun elkartu ziren bazkaltzera eta bertso-larien saioaren ondotik Gabenara taldearekin dantza franko egin zuten jendeak. Ekainaren 21ean, Gure Esku Dago egunean ere Iruñean izan ziren aresoarrak, aurretik apaindu eta jositako oihalekin hautesontzia osatzen. Goizean oihal katea egin zen alde zaharrea eta egun osoan jai giroa izan zen nagusi. Arratsalde-



ARGAZKIAK: UXUE GOIKOETXEA ETA PELLO BELAUNTZARAN

Herritarrek gogoz parte hartu dute ekitaldietan eta josten trebeak direla erakutsi ere bai.

an zezen plazan nekez ahaztuko duten ekitaldiak gozatu zuten eta eguna bukatzeko kontzertuak ere izan ziren.

SAN JUAN GAUA

Bukatu dute haurrek aurtengo ikasturtea eta udako oporrak hasi. Pa-

sa den ostiralean izan zuten azken klase eguna eta horren ondoren zakuak eta kartoiak biltzeari ekin zitoten San Juan sua osatzeko. Urtero bezala arratsaldean jolasak eta merienda izan ziren haurrentzat, Guraso Elkarteak

antolatuta eta gauean, herri afari autogestio-natua egin zen trinkean, edariak berriz, udalak jarri zituen. Afalondoan majina bat salto egin zituzten herritarrek suaren gainetik, izpiritu txarrak uxatu eta zortea erakartzeko.

Ba al zenekien ?

Hemendik aurrera Leitzako 12 komertzio hauetan Ttipi txartela erabiltzeko aukera izango duzula. Beraz badakizue, herrian erosterakotan eraman ezazue zuekin txartela!



BAZTAN

GIZARTEA → EKAINAREN 13AN KARGU-HARTZEA

Joseba Otondo izanen da alkate datozen lau urteetan

EH Bilduko alkategaiak Ezkerraren babesa izan zuen, UPNk Sanzberroren alde bozkatu zuen eta Geroa Bai eta Baztan Auzolanean-ek zurian

Baztangoa. Hemen ere ez zen ezusterik izan eta botu gehien jaso zuen EH Bilduko Joseba Otondo izanen da alkate, taldeko lau zinegotzien eta Ezkerrako bi-en babesarekin. UPNko lau zinegotziek Begoña Sanzberroren alde egin zuten eta Geroa Bai bi zinegotziek eta Baztan Auzolanean taldeko bakarrak zurian bozkatu zuten.

Beraz, gehiengo osorik gabe osatu du gobernu taldea oraingoan EHBilduk.

Ezker abertzalearen batzarra

Bertze aldetik, Baztango Ezker Aber-

TTIPI-TTAPA

Ez zen ezustekorik izan, maiatzaren 24ko hauteskundeek argi xamar utziak baitzituzten kontuak. Gehiengo osorik gabeko udal bakarra zegoen eskualdean,

ESKAERAK EKAINAREN 30A ARTE

Giltxaurdi Udak Kirol Instalazioko lan poltsa osatzeko deialdia egin dute

TTIPI-TTAPA

Giltxaurdi SL enpresa publikoko monitorea lanetarako langileen lan poltsa sortzeko helburuarekin deialdia egin dute. Eskaerak Baztango Udaleko erregistro orokorrean entregatu behar dira ekainaren 30eko 20:00ak baino lehen.

Izena ematen dutenen ikasketei dagokienez, monitorea lanekin zerikusia duten goi mailako zikloak, jarduera espezikoetako titulazioak edo baliokideak izan beharko dituzte. Hizkuntza eskakizunari dagokienez, ahozko euskara C1 edo baliokidea eta idatzizkoa B2 izan beharko dute. Titulu ofizialarekin justifikatu beharko da edo maila neurten duen azterketaren bidez. Norbere autoa eta gida baimena ere izan beharko dute. Lanaldia beharren arabera izanen da.

Informazio gehiago Baztango udalaren webgunean (www.baztan.eus).



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Azken lau urteotan alkate izan den Garbiñe Elizegiren eskutik jaso zuen aginte-makila Joseba Otondo alkate berriak.

tzaleak batzarra deitu du ekainaren 25ean, ortzegunean 19:30ean

Arizkunenean. Barne antolakuntzaz, presoan aldeko mugimenduaz,

udako ekintzetaz eta bertze erronkei buruz aritzeko bilduko dira.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Musikari handiak omendu dituzte Txistularien Alardean

Ekainaren 7an Txistularien Alardea ospatu zuten. Mugarik Gabe Ttuntuneroak taldeak antolatu zuen ekitaldia, Nafarroa Oinezaren ospakizunen ekitaldien baitan eta Jexux Baylon eta Jaime Biguriaren koordinaziopean. Txistulariek, talde ttipietan, Baztango herriak txistu doinuekin girotu zituzten goizean. Eguerdian, denak Elizondon elkartuta, Mariano Izeta, Jabier Larralde, Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte omendu zituzten. Akitzeko, kalejira baten ondotik, Kasino elkartean bazkaria izan zuten. Herriz herri jo zituzten dianezen gain, aipatzekoa da karriz karriz ibiltzeko, Agustin Eraso Thetschel musika irakasle eta txistulariak konposatutako Maurizio eta Felix pieza jo zutela txistulariek.

BESTAK → UZTAILAREN 4TIK 7RA

Azpilkuetako Sanfermin egun handian tortilla txapelketa egingen dute

Igande arratsean berriz, mexikanak eta herriko haurren dantza jazz erakustaldia

TTIPI-TTAPA

Iruñeko edo Lesakoen inbidirik gabe, aurren ere egitarau zabalarekin datoz Azpilkuetako Sanfermin bestak.

LARUNBATA, UZTAILAK 4

- 18:30ean Txupinazoa beste hasiera emateko.
 - 19:00etan Frontenis txapelketako final handia.
 - 20:00etan dantzaldia Hauspolariak taldearekin.
 - 21:30ean Baztan Zopak Herri-Arte elkartean.
- 00:30etik aurrera dantzaldia Hauspolariek alaiturik.

IGANDEA, UZTAILAK 5 HAURREN EGUNA

- 16:00etan puzgarriak.
- 16:30ean Mus txapelketa.
- 17:00etan txokolata da frontoian.
- 20:00etan Mexikanak Puro Relajo taldearen eskutik
- 21:45ean Azpilkuetako haurren Dantza-Jazz erakustaldia.

ASTELEHENA, UZTAILAK 6 ZIKIRO JATE EGUNA

- 8:30ean gosaria.
- 14:30ean zikiro jatea Frantzisko akordeolariak alaiturik.
- 21:30ean zikiro afaria.
- Ondotik dantzaldia Frantziskorekin goizaldera arte.

ASTEARTEA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNA

- 11:00etan Meza nagusia zaindariaren ohoretan.
- 12:00etan Luntxa Herri Arte elkartean.
- 14:00etan gazteen bazkaria.

- 16:00etan Partxis txapelketa.
- 20:00etan Dantzaldia Joxe Anjelekin.
- 22:00etan Tortilla txapelketa eta dastaketa Herri Arte elkartean.
- Ondotik mahai inguruko kantak Joxe Anjelek alaiturik eta Gaixoa ni beste bukaera emateko.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Aurten ere giro polita izanen dute Azpilkuetako San Fermin bestetan, bai mahainguruan, baita dantzan aritzeko aukera eskainiko baitute.



EKAINAREN 27AN

Miguel Gallastegi omenduko dute Oronozko San Martin eskolako ikasle ohiek urteko ospakizunean

TTIPI-TTAPA

Ornozko San Martin ikastetxe-ko ikasle ohiek urteroko anaitasun besta ospatuko dute ekainaren 27an. Ekitaldia aprobetxatuko dute Miguel Gallastegi pilotari handia omentzeko, Eibarkoak aunitzetan parte

hartu baitzuen Segundo Gangoitia anai maristak antolatzen zuen Pilotarien Egunean. Ikasle ohi gehienak ortziralean ailegatzen hasiko dira Oronozera, baina larunbatean egingen dute besta, ohikoa denez, egitarau zabal eta aberatsarekin.

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ELEK BERRI

INSTALADORE BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK (ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na) · elekkerri@gmail.com · 646854825 // 616898065

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDI ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

BAZTAN

GIZARTEA → OHARRA

Zahar Etxearen aferan «bi ereduren arteko talka dagoela» uste du EH Bilduk

Kudeaketa publikoaren eta «entxufismoa bultzatzen duen» zerbitzu publikoen privatizazioaren artekoa

TTIPI-TTAPA

Azken asteotan Zahar-Etxeko kontratazioen inguruan, enpresa batzordearen, patronatoko kideen eta IDEA enpresaren inguruan zabaldu diren berrien aitzinean, «horrelako egoerak Zahar-Etxearen eguneroko funtzionamenduari zein erabiltzaileen egoerari kalte zuzena eta nabarmena eragiten diola» uste du EH Bilduk.

EH Bilduren ustez, «egoera hauek saihestea da alde guztien betebeharra eta batez ere ardura eta erabakiak hartzeko ahalmena duen Patronatuarena. Patronatua 2009an eta baita 2014an ere aukera izan du kudeaketa zuzena eta publikoa egiteko. Bi kasuetan kudeaketa IDEA enpresaren esku utzi nahi izan du, lehiaketa publikorik egin gabe eta azkenengo kasuan Udal Gobernuaren iritzia kontra».

EH Bilduren arabera, lotura zuzena dago erabaki horien eta gaur egungo egoeraren artean: «Enpresa pribatu honek ez du langileak kontratatzerakoan froga objektiborik egiteko legezko betebeharririk, ezta langileen profesionaltasuna edo hizkuntz eskakizunak betetzeko ere. Beraz, honek aukera handia uzten du entxufismo, faboritismo eta klientelismoan oinarritutako kontratazioak egiteko. Egoera honen kontratazioen inguruko susmoak sorrazten ditu eta herritarren zein langileen ha-



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko eskola publikoan ere agurtu dute ikasturtea

400 bat lagunek parte hartu zuten Elizondoko Eskola publikoaren ikasturte bukaerako bestan. Baztango Dantzari Txikien emanaldiarekin hasi zen ospakizuna eta zumba erakustaldia ere eskaini zuten. Frontoian eta patioan tailer ezberdinak eskaini zituzten. Eguerdian, pilota txapelketako finalak jokatu zituzten. Nesketan, Eider Telletxea eta Olaia Mendiburu suertatu ziren txapeldun eta mutikoen artean, kategoria batean Oier Zelaieta eta Imanol Goienetxe eta bertzean Asier Mitxelena eta Unai Iturregi (txapeldun ordeen ageri dira argazkian). Bazkaria estalpean egin behar izan zuten eta arratsaldean tailer gehiago, kill-kiak, berendua eta DJarekin dantzaldia izan zituzten.

serrea pizten du». Zerbitzua ahal den hobereen emateko langileen kontratazioa bere gaitasuna zein esperientziaren arabera izan behar harko litzatekeela uste du EH Bilduk eta «hau bermatzeko kudeaketa

publikoa da gardentasuna eta profesionaltasuna ziurtatzeko modu egokiena».

Bi ereduen arteko talka baten aitzinean gaudela dio EH Bilduk: «Gardentasuna, profesionaltasuna, eta langi-

le zein erabiltzaileen eskubideak bermatzen dituen kudeaketa publikoaren eredua, eta bertze aldetik dugu faboritismoa eta entxufismoa bultzatzen duen zerbitzu publikoen privatizazioaren eredua».



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen Jaunartzea Almandozen

Izaro Larroque eta Iker Sagardiak lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 7an. Argazkian, Ramon Apeztexea apezarekin ageri dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiurko Herri Eskola Oinez gailurrean

Joan den ereiarioaren 5ean, Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren kariatara, Amaiurko eskolako haur koxkor eta haundienak Oinez Gailurra ekimenak proposatutako ibilbideetako bat egiten ibili ziren. Herriari itzulia egitea proposatzen duen *Amaiur ttipia* delako ibilbide zoragarrian ibili ziren gogotsu, herriko paraje ederretaz gozatzen bertze behin ere. Anima zaitzete gure herria ezagutzera zuek ere!!

OSPAKIZUNAK → IKASTURTE AKABAILAKO BESTA

Juanjo Atxa omendu du Baztan Ikastolak

37 urtez irakasle izan denak erretiroa hartu du orai

TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolako ikasle, ikasle ohi, guraso, irakasle eta laguntzaileak, 500 lagun inguru, bildu ziren ekai-

naren 13an Baztan pilotalekuan ikasturte akabailako bestan. 37 urtez irakasle izan ondok aurten erretiroa hartu duen Juanjo Atxa Mindegia izan zen protagonista, omenaldia eskaini nahi izan baitzion ikastolak.

Gorka Urtasun, Oier Amiano, Iban Dufurrena, Maialen Kamino eta



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Juanjo Atxa omendua, Baztan ikastolako ikasle batzuekin.

Xabier Goñi ikasle ohiek kantuz eta bertsoz eskerrak eta oroigarri bat eman zizkieten Atxari. Orai, asti gehiago izan duenez, mendian ibiltzeko makila eta mo-

txila ere jaso zituen irakasle almandoztarrak. «Nafarroa Oinez batekin ailegatu nintzen eta bertze batekin noa, baina beti hemen izanen naiz» adierazi zuen hun-

kituta Juanjo Atxak.

Gero, bazkari eta bazkalondo luzearen ondok, frontoia ongi txukundu eta kalejiran ibili ziren, Mifa Fanfarearekin.

GIZARTEA → GOBERNU TALDEAREN ADIERAZPENA

Herritarren artean ez duela tratu desberdinik egin dio Udalak

UPNren oharrari erantzun dio

TTIPI-TTAPA

Baztango Udal Gobernuak ohar bidez erantzun dio UPNk etxeak pintatzeko EIOZaren kobraketaren inguruan bidalitako prentsa oharrari. Udal Gobernuaren erranetan, «etxeak pintatzeagatik bakarrik EIOZa ez kobratzea Udalaren ohitura izan da azken hamarkadetan. Legealdi hasieran Udal Gobernu honek ohitura hori mantentzea erabaki zuen estetikoki Baztango paisaia manten-

tzearen aldeko laguntza bezala».

Aldiz, obra baimena eskatzerakoan pintatzeaz gain lan gehiago egitea aurkezten bada aurrekontuetan, EIOZa kobratzen da, pintatzea barne, bertze obra guztietan bezala. Irizpidea hau izanik, herritar guztiakin bete dela dio Udal Gobernu taldeak, «ez da tratu desberdinik izan herritarren artean. Hori ziurtatzeko espedienteak eskatzea bertzerik ez du egin behar UPNk. Baina argi dago UPNren helburua ez dela gauzak benetan nola egin diren jakitea».

Udal Gobernu Tal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Dispertsioaren kontra 1.200 kilometro bizikletaz

Baztango herriek ere dispertsioari ez kanpainaren baitan, dispertsioarekin akitzeko hitzordua antolatu zen ekainaren 12an Elizondoko plazan. «Denen esfortzuaz dispertsio politikarekin bukatuko dugu» errepikatu zen behin eta berri ez ekitaldiak iraun zuen denbora guzian. Errepikatu eta irudikatu, izan ere, Elizondoko plazan paratutako borts bizikleten pedalei eraginez, Joxe Miel Gaztelu espeteratua dagoen Algeciraseko espetxetik Elizondoraino dauden 1.200 kilometroak korritu ziren taldeka eta txandaka.

dearen ustez, «lau urte pasa ditu UPNk usteleria endemikoa dela eta denok berdin jokatzen dugula sinetsarazi nahian, baina ez du lortu. Argi gelditu da UPNren funtzionatzeko modua dela hori, eta ez gainerako guztiona. Beraiek bezala, guk ere ez ditugula herritar guzti-

ak berdin artatzen sinetsarazi nahi izan du eta hori ere ez du lortu».

Udal Gobernu Taldearen oharrak azpimarratzen duenez, «Baztango UPNk bertze habibatetan egin duen bezala, harria bota eta eskua gorde du. Hala ere, kontrakoa lortzen ari da,

nabarmen gelditu baita Maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzetan UPNk Baztanen daraman gainbehera». Gauzak horrela, «gal-tzaile txarraren jokaldi zikin gisa bakarrik ulertu ditzazkegu egindako adierazpen hauek», Bil-du eta Ezkerraren ohar-rrak zioenez.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → EKAINAREN 13KO BILKURAN

Ebarixto Mentaberri aukeratu dute alkate berria

Laxaro
Dainziart-i
txanda hartuko
dio
Malastakoak

Margari eta Koro

250 biztanletik beheitiko herrietan, Udala hautatzeko manera diferenta da. Halakoe-tan, herritarrek ez dute talde bat aukeratzeko, pertsonak aukeratzeko dituzten zuzenean. Zugarramurdi 4 pertsona aukeratzeko ahal zizuten bozkatzerako orduan, eta boto gehien lortzen zizuten bost lagunak sartu dira udalean. Gero, Udala berriaren lehenbiziko bilkuran, bost zinegotzi horien artean aukeratzeko dute alkatea.

Ekainaren 13an alka-

te aukeratuakoa Ebarixto Mentaberri izan da, Laxarori sanaia emanez.

Xabier Etxeberria izanen da udako herri-mutila

Urteroko dirulaguntzei esker, herri-mutil bat izendatu dute. Aurten Xabier Etxeberria arituko da lanean iraila bukaera arte.

Eskertzekoa da lanpostu hau, udalak berez egin ezin dituen ordaindutako hainbat lan egiten direlako. Batez ere herriko mantenuan (konponketak, pinturak, sasi mozteak...).

Bestaberri

Erdaraz Corpus Christi deitzen den bestari, gure herrian "Besta berri" deitzen zaio. Gaur egun ez daki nio-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Alkate berria dugu Malastako Ebarixto Mentaberri.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Eguraldia lagun, prozesione polita antolatu zen aurten ere.

rek nondik heldu zaion izen hori, edo zer erran

nahi ote zuen denbora batean. Antzinako sinis-

men zaharren baten izena ote da?

EKAINAREN 21EAN EGIN DU URTEKO OSPAKIZUNA LOGROÑON

Pilotarien Batzarrak Fermin Iriarte zugarramurdiarra omendu du

TTIPI-TTAPA


Pilotari, pilotari ohi eta pilotazaleak biltzen dituen Pilotarien Batzarrak omenaldia eskaini dio ekainaren 21ean Fermin Iriarte Irigoien zugarramurdiarrari Logroñon egin den ospakizunean.

Gazte denboran (eta oraindik orai) palaz aritu zen Iriarte eta Espainiako txapel-dun izan zen zenbait urtez. Horretaz gain, kultur arloan ere nabarmendu da eta Zangozako

Nora Abesbatzako zuzendari izan da eta Zugarramurdi-ko historiari buruzko liburuak ere eman ditu argitara.

1944ko otsailaren 21ean jaio zen Fermin Iriarte Zugarramurdi. 24 urtetan hasi zen titulua pilotatzen, 1968an Tuteran txapel-dun izan baitzen. 1969an Zangozako Cantolagua pilotalekuaren inaugurazioan parte hartu zuen eta Zangozako taldean eskubaloiko atezain ere izan zen. 1971n

Madrilen federatu zen eta 1972an pala eta larruzko pala txapelketak irabazi zituen. Urte hartan gainera, Madrilera aritu zen eta Federazio arteko txapelketan Nafarroari irabazi zion, Larumberekin bikote eginez, Casado eta Egaña *garaitezinak* 40-34 menpean hartuta Labriten. 1973an Espainiako klub arteko txapel-dun izan zen eta 1974an, pala laburrarekin Federazio arteko txapelketa ira-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Fermin Iriarte, Zugarramurdi-ko historiari buruzko liburuak aurkeztu zuenean.

bazi zuen. Euskal-Jai, Galarreta eta Balda pilotalekuetan palako profesionala izan zen. Berrikiago, 1997 eta 1999an Zugarramurdi-ko pala txapelketa ere irabazi ditu.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 27AN

Besta eginen du eskola publikoak larunbat arratsaldean

Haurren ikusgarriak dantza, bertsua eta antzerkia nahastuko ditu

posatua da: lomo eta lur sagarrekin, izozkia.

Arratsean egurrezko jokoak izanen dira haurrentzat. Tonbola bat ere antolatua da eskolaren alde, txartelak eskolan berean erosten dira.

Joana GERENDIAIN

Ekainaren 27an, larunbata, arratsaldean eskola publikoaren besta iraganen da. Besta eskolan berean iraganen da. 17:30ean haurrek kabalkada ttiki bat aurkeztuko dute, ikusgarri honek dantza, bertsua eta antzerkia nahasten ditu. Ondotik, ikasleen gurasoek zintzur bustitze bat eskaintzen dute pintxoekin eta afari bat antolatzen jantegian, denei irekia dena. Menua 15 eurotan da helduentzat: meloia xingarrarekin, xerri-ka zartaginean errea lur sagar, kafe goxo, arnoa eta ttota. Haurrentzat 5 euroko menu bat pro-

Haur bilgunea

Larrun ttiki haur bilgunea uztailaren 6tik abuztuaren 21era irekia izanen da. 3 eta 12 urte arteko haurrak onartuak dira eta lehen-tasunez burasoak lanean ari baldin badira. Jakin behar da Jeunesse et Sport elkarteak 40 haur onartzen dituela Sarako egiturari. Haur bilgunea goizeko 7:30etik arratseko 6:30 arte.

Udako bi hilabeteetan 10 animatzaile arduratuko dira haurretzat, uztailaren Maider Olaso, Maia Jauregui, Manon Péral eta Oihana Indarra (ikastun gisa); abuztuaren Martina Go-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola publikoko ikasleek, irakasle eta gurasoek bezalaxe, egun handia izanen dute.

yetche, Arantxa Oronoz, Manon Péral, Joana Tellechea eta Eztitxu Harriagain (ikastun gisa).

Aurten ere animatzaileek egitarau aberatsa proposatzen dute, ingurumenaren deskubritzea, kirolaren inguruko aktibitateak antolatuz eta astean behin ateraldi bat eginez.

Abuztuaren lehen astean aste bateko ateraldia antolatzen dute Pont de Camps-era, Ossauko ibarrean, bertan eskalada, mendi martxa, rafting bezalako akti-

tateak eginen dituzte.

Esku baloia

